

# hiruka

Urbe Kostako astekaria



Neguko zenbaki berezia 2016ko abenduaren 16tik 2017ko

urtarrilaren 18ra arte

Datorrenaren  
begira, **on**  
**dagizuela!**



# ZU HEMEN ZAUDE, ZURE OPARIAK ERE TÚ ESTÁS AQUÍ, TUS REGALOS TAMBIÉN

• Gabon hauetan  
aurki ezazu  
nahi duzun guztia  
Getxoko  
1.200etik gora  
saltokietan

Esta Navidad  
encuentra todo  
lo que buscas  
en los más de  
1.200 comercios  
de Getxo



**Getxon**  
daukazu!

**ZORIONAK**  
**FELIZ NAVIDAD**



**Getxo**  
*bizi ezazu*

**HIRUKA Koop. elk.**

**Helbidea:** Martikoena 16, 2. 48991 GETXO  
**e-maila:** hiruka@hiruka.eus **P.-Ku.:** 171  
**Telefonoa:** 944 911 337  
**Publizitatea:** Erika Martinez/Ninbe Landa

**Erredakzio-burua:** Irantzu Sagarmínaga**Erredakzioa:** Iker Rincon, Zuberoa Iturburu, Iñigo Fernandez de Martikorena**Argazkiak:** Hodei Torres**Testuen orrazketa:** Zulbeltz Vega Olaeta**Diseinua:** Artefakto**Kudeaketa:** Zortza Merino**Filmazioa eta Inprimategia:** BEPSA**L.G.:** BI-2022-2014 **ISSN:** 2386-98-95**Ale-kopurua:** 8.000 ale **CC-BY-SA**[www.hiruka.eus](http://www.hiruka.eus)

# Negukoa



**H**au da urteko azkena, hurrengo HIRUKA astekaria 2017ko urtarrilaren 19an argitaratuko dugu. Uda-ko bereziaren antzera, zenbaki hau ere Neguko berezia da; biak ala biak jaien inguruan barrubeteak. Bigarren urtea amaitzear dago... Datorrenean, hirugarrenari eutsiko dio HIRUKAK; beharbada, izango dugu 2017an elkarregaz ospatzeko aukera bereziren bat...

Han eta hemen irakurri dugu, urteko beste sasoi batzuetan legez, Eguberrietan *oles ta oles* hasten direla eske-errondetan kantatzen diren hainbat bertso eta koplak. 'Oles' berba hori ez da lar erabiltzen gaur egun, baina eskean ibili ohi denak ez du ahaztu... Labayrukoek diotenez, «aspaldian lehenengo agurra egiteko zen, eta errespetu eta begirune handia adierazteko ere erabiltzen zuten». Horrenbestez, zuri, irakurle, oles egin

ostean, olesean gatozkizu. Eskutitza bidali dugu daborduko, Olentzerori zein Mari Domingiri, eta dagokien beste guztiei ere bai; zeu, euskaldun hori, ahaztu barik. Hala, «oles eta oles» hasten da gutuna, eta 2017rako HIRUKAren eskaria, opari-eskaera daroa: «Uribekostar hori, parte hartu egizu bere orriak zabal-zabalik dituen komunikazio-proiektu honetan: HIRUKA zaitez! Bultza egizu arlo ekonomikoan ere, egin zaitez HIRUKAlagun edo Bazkide». Orain, zure esku dago bi urteotan HIRUKAK opetsi dizunaren gainean gogoeta egitea; eta merezi duen erabakitzea, Uribe Kostan euskarazko komunikabide bat beharrezkoa den erabakitzea. Bada, badakizu...

Eskerrik asko den-denagatik,  
 Gozatu Gabonak edo oporrak!  
 Eta betiko legez, ez ahaztu:  
 Urte berri on! Eta bueltak, HIRUKAri!

**Erakunde laguntzaileak:**

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Saiburuordetzat) diruz lagundua.



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

## faceguk



# Zergatik da garrantzitsua HIRUKA diruz ere laguntzea?

## ARRATE ILLARO ETXEBARRIA

LEIOA



Uribe Kostako euskaltzaleok, badugu gure inguruaren berri euskaraz eta maiztasunez ematen digun hedabidea. Uzta ezin jaso, ordea, hazia erein gabe: komunitatearen ekarpena ezinbestekoa da, lana duintasunez eta kalitatez burutzeko.

## DAVID HIGON GARCIA

GORLIZ



Zergatik da niretzat garrantzitsua HIRUKA diruz ere laguntzea? Bada, diruari balioa emoteko. Euskararentzako *tarifa plana* lortzeko: edonork, edonon, eta edozein momentuan, prezio onenean, erosi!

## JANIRE ENZUNZA LANDA

PLENTZIA



Eskualdean euskerea ez dago osasuntsu, eta, are gitxiago be, bertoko euskerea. Nik HIRUKA diruz laguntzeko erabakia hartu neban, 365 egun euskeraz bizi diralako, eta bertoko euskerearen aldarrikapen argia eta etenbakoa egiten dabelako.

## DAVID BUSTAMANTE

BARRIKA



Niri gustatzen zait barneko kontuak eta informazioa ematea. Telebistek eta egunkariak kontaktzen digute munduan gertatzen dena. Baina Uribe Kosta da gure eguneroko mundua, eta hemen gertatzen dena ezagutzeko oso ondo dago HIRUKA.

## AMAIA ARRIAGA LEJARRAGA

ERANDIO



Niretzat balio itzela dauka HIRUKAK, eta askoz be bide oparagoa egitea nahi nukeenez, gustura ipiniko ditut SOS batzuk proiektuari eusteko. Uste dut libre jarduteko eta bide berriak irekitzeko bermea dela komunitatearen parte-hartzea.

## JOSE MARIA MARTINEZ SANCHEZ

BERANGO



Niretzat garrantzitsua da HIRUKA komunikazio-proiektua, Uribe Kostako bertoko informazioa ematen duelako, lehenengo eskukoa, gainera. Maitasun handiz lantzen dituzte albisteak eta, hala, informazioa oso gertukoa da.

## KARLOS GOÑI BENGOA

ALGORTA



Euskararen normalkuntzarako bidean gauza batzuk garrantzitsuegiak dira edonoren esku uzteko, zuk zeuk izan behar duzu protagonista (HIRUKAN bazkide). Eta honako hau pentsatu: zuk euskara behar duzu?? Euskarak zu behar zaitu!!

## ERLANTZ IBARGURENGOITIA VALLE

LEMOIZ



Euskal komunitatea sendotze aldera Uribe Kostak beharrezko duen proiektua delako. Gurean euskara zokoratua izan da beti eta HIRUKAK haize pixka bat ematen dio. Astero, albisteak eta inguruko berri euskaraz ematen ona da.

## AITZIBER ETXEGARAI BEGOÑA

SOPELA



Hirukalagun izateak badu garrantzia, HIRUKA euskara hutsean delako eta inguruko herrien gertakizunen albisteak eta jazotakoak azaltzen dituelako inolako aurreiritzirik gabe; baita komunitate euskaldun zabal sortzeko balio duelako ere.

## AITOR ESTEBAN ETXEBARRIA

URDULIZ



HIRUKA lagunduz, euskaraz bizitzeko gure hautua berrestez gainera, euskaltzaleon irismena areagotzen dugu, bestela nekez helduko ginatekeen txokoetara ailegatuz. Euskal hiztun komunitatea trinkotze aldera ezinbestekoa dugu.

# Aurkibidea

<b>HIRUKATARRON AGURRA: OLES EGINEZ</b> .....	3
<b>FACEGUK</b> .....	4
<b>GABONAK EDO HERRI ZAHARREN OSPAKIZUNA?</b> Erreportajea .....	6-7
<b>UMEEN GABONETAKO PARKEAK</b> Herriz herri .....	8
<b>OLENTZERO ETA MARI DOMINGIRI GUTUNA</b> .....	9
<b>HIRUKIRA OLGETAN</b> Umeentzako denbora-pasak .....	12-14
<b>UMEENTZAKO OPARI-PROPOSAMENAK</b> .....	16-19
<b>LEXURIREN HANKAK</b> Ipuina .....	20-21
<b>MARI DOMINGIRI ELKARRIZKETA</b> .....	22-23
<b>AGENDA</b> Herriz herri .....	24-25
<b>NAGUSIENTZAKO OPARI-PROPOSAMENAK</b> .....	26-31
<b>GASTRONOMIA-GIDA</b> Gabonetako proposamenak .....	32-37
<b>HITZA EMANDA</b> Urteari begirako bertso-sorta .....	38-39
<b>ILE-APAINDEGI ETA ESTETIKA-ZERBITZUEN PROPOSAMENAK</b> .....	40-41
<b>BADUZU:</b> Euskal kontsumitzaileen eta zerbitzu-emaileen komunitatea .....	42-43
<b>HOROSKOPOA ETA ZOZKETAK</b> .....	44-45
<b>EGIN ZAITEZ HIRUKA.EUS-EN KOMUNITATEKO KIDE</b> .....	46
<b>ESKER ONAK</b> .....	47



## DACIA SANDERO

**Izan zaitetz ARGIA. Eros ezazu Dacia bat.**

 Dacia España
  Dacia ESP



[www.dacia.es](http://www.dacia.es) / 915 065 359 | Ikus ezazu zure Renault-Dacia kontzesionarioan.

Dacia Sandero gama: kontsumo mistoa (l/100km) 3,5 eta 5,8 bitartean. CO<sub>2</sub>-aren isuria (g/km) 90 eta 130 bitartean.

Dacia garrantziazren du 

BILBO BERRI Jon Arrospide, 20. Tel. 94 448 39 00. DEUSTU [www.bilboberri.com](http://www.bilboberri.com)  
 LEIOA BERRI Iparragirre Hiribidea, 94. Tel. 94 480 42 90. LEIOA [www.renault.es/concesion/leioaberri](http://www.renault.es/concesion/leioaberri)

**Negu sasoian, Euskal Herrian**, beste herri zaharretan legez, Gabonei lotutako ospakizunak burutzen dira aspaldi-aspalditik. Eta ulertu ahal izateko antzinarora bueltatu beharko dugu, paganoen garaira.

# Gabonak, edo herri zaharren ospakizunak

ARITZA BERGARA ALUSTIZA ▶

Mendeetan zehar, kristautasuna lehenago eta zientziak beranduago, Euskal Herrira ailegatu eta haien ideiak zabaldu baino lehenago, jendeak denbora markatzeko ilargiaren zikloak eta lurrraren zein eguzkiaren arteko posizioek naturan eragiten zituzten aldaketa ziklikoak jarraituz lortzen zituzten haien erreferentziak. Horrela, antzinako ospakizunek eta ohiturek egutegi horrekin lotura zeukaten.

Antzinako biztanleek haien inguruneari erreparatzen zioten. Hori dela-eta, naturaren indarrak adoratzen zituzten: Eguzkia, Ilargia, Amalurra... Fenomeno horien artean eguzkia nabarmentzen zen, argia ematen zuelako eta, hala, bizitzari bidea egiten.

**Neguko solstizioa**  
Lurraren ardatza inklinatua

dagoenez, gure lurrian urteko momentu ezberdinak sortzen dira: urtaroak. Makurdura dela-eta, urtean zehar jasotzen ditugun argi-orduen kopurua aldatzen doa. Aldaketa horren momentu kritikoak dira eguzkia urrunago edo hurbilago dagoenean: neguko solstizioa –urteko egunik laburrena eta gauarik luzeena- eta udako solstizioa –urteko egunik luzeena eta gau laburrena-. Solstizio hitza latinetik dator: *solstitium* (*sol sistere*); eguzkia lo –geldirik- dagoela adierazten du.

Gure arbasoek lurrraren eta eguzkiaren arteko erlazioaren momentu garrantzitsuenak markatzeaz gainera, ospakizunak ere antolatzen zituzten: Eguzkiak gauarekiko borrokan irabazten zuela ospatzeko –Udan- edo berriro birjaio edo berpizten zela, eta berarekin bizia ekartzen zuelako –Neguan-.

«Zeintzuk ziren ospakizun horiek?»-galdetuko duzue. Horretarako ez dago erantzun bakarra, gauza guztiak bezala, ohiturak aldatuz joan baitziren mendeetan zehar. Gainera, erritu horiek ez ziren solstizio-egunean bakarrik burutzen, data horren hurbileko egunetan ere bai (Gabonetan, berbarako).

Baina elementu batzuk mantendu dira: ura, sua eta landareak.

Kristautasuna Euskal Herrira ailegatu zenean paganoen ospakizunak oso finkatuak zeuden herriarengan. Hori dela-eta, haien errituarekin barneratu zituen antzinako sinesmenak. Hala, eta modu artifizial batez, Kristoren jaiotzak neguko solstizioarekin bat egin zuen, eta San Juan Bautistarenak udako solstizioarekin (nahiz eta egun batzuk beranduago ospatu). Handik aurrera, eta mende askotan zehar, sua, ura eta landareen inguruko paganoen errituak eta kristautasuna elkar mantendu dira, mestizaje edo nahasketa berezi batean. Eta aipatutako transposizioa Gabonetan ere erraz ikus daiteke.

## Solstizioari lotutako ospakizunak

Nekazarien komunitateetan, soroetan azken produktuen jasapenak eginda zeundenean, eta txerria dagoeneko hilda, neguari aurre egiteko prestatu behar ziren. Baina, hori baino lehenago, urteko zorrak ordaindu behar zituzten. Horregatik Santa Lutzi leku batzuetan –Urretxu, Zumarraga...- eta San Tomas besteetan –Donostia, Bilbo, Gasteiz...- egin behar hori egiteko erreserbatzen zen. Hala, Gabonak baino hiru egun lehenago –norma-



# akizunak?


lean neguko solstizioaren egunean, beren-beregi, baserritarrak hirira joaten ziren, zorrak ordaintzera eta urteko azken produktuak saltzera, urte zaharri agurra eginez. Azokak neguaren atea zabaltzen zuen.

## Olentzero eta Eguberria

Egun batzuk beranduago Olentzeroren etorrera eta Eguberria ospatzen zen. Gure arbasoek ondo ezagutzen zuten eguzkiaren ibilbidea, egun hori «Eguberria» izendatu zuten. 'Egu', eguzkitik datorrigun hitza, eta 'berri', haien zako eguzkia berriro berpizten zen eguna zelako. Neguko solstizioaren ostean, egunak luzatzen doaz, gauari irabaziz eta berriro bizitza ekarriz.

Eguberri-eguna garrantzitsua bazen, aurreko arrasti-gaua ez zen ez garrantzi bakoa: Olentzeroren gaua zelako. Olentzero, gaur egun ezagutzen dugun moduan, mendietan lan egiten duen ikazkina da. Hantxe ematen zuen urte osoa, eta herrira Gabonetan bakarrik etortzen zen, umei opariak emateko: onak baziren, opariak; txarto portatu zirenei, berri, ikatza uzten zien. Olentzeroren etorrera gogoratuz eta ospatuz, lehen baserriz baserri, eta gaur egun herri edo hirietan kalez kale, gazteek beraren papera betetzen duen pertsona batekin, edo ordezkatzeko duen panpina batekin, bira ematen dute, Olentzeroren koplak abestuz.

Egia esanda, gaur egun zabaldu den Olentzeroren irudia bat baino ez da. Sustraietara begiratzen badugu, ikus ditzakegu izen ezberdinak: Olentzero, Olentzaro, Xubilaro, Suilaro, Galere, Putierre.... Izen ezberdinak eta interpretazio ezberdinak pertsonaia honen gainean. Lehen aipatu den legez, batzuetan, panpina da Olentzero. Leitzan, esaterako, elizaren kanpaien dorretxetik jaisten da –gaur egun, Gasteizko



IRUDIAK: © MITOLOGIKA BILDUMATIK HARTUTA

Zeledonen moduan-. Bestetan, herriko mutil edo gizon bat ateratzen da. Eta askotan panpina txikia da, etxeen suturen ondoan kokatuta dago, Gabon-gauera arte. Normalean, ardo botila daroa, txapela, aurpegia belztuta, lohia –bere lana dela-eta-; nahiz eta azken urteetan Euskal Santa Klausen itxura hartu... Nafarroako Larraun haranean, elementu horiekin guztiekin batera, igitai bat eramaten du. Abenduaren 24an baraualdi bat egiten zen, baina batzuek ez zuten errespetatzen. Haien kontra erabiltzeko eroaten zuen Olentzerok igitai hori. Gainera, Larraunen diote Olentzerok begi asko zituela, urteak zituen egunak beste eta bat gehiago... Eta kondaira baten arabera, Olentzero azkenengo jentila da.

Azken boladan, Olentzerorekin batera, Mari Domingi ateratzen da. Nahiz eta genero ikuspuntutik ona izan daitekeen, Mari Domingi beti etxeko lanetan eta Olentzeroren laguntzaile

gisa agertzen zaigu, bigarren mailako pertsonaia bezala. Beharbada, politagoa izan daiteke Leitzako ikuspuntua: bertan Olentzero, urte batzuetan, gizona da, eta, beste urteetan, andrea. Eta, beti-beti, lehen mailako pertsonaia dugu.

Olentzeroren gaua pasa ostean, Eguberria edo Gabonak ailegatzeko dira. Olentzero deitzen zieten ere ospatzen ziren jaiei. Bizkaialdean, Natibitate-eguna erabiltzen zen batzuetan; Nafarroan, Xubilaro; eta azken horrekin leku egingo diogu beste sinesmenari: izen hori sortzeko, 'subil' (Gabonetan erretzen den enborra) eta 'aro' (garaia, momentua) berbak erabili ziren-eta.

Sinesmen, erritu eta ohitura batzuek milaka urte dituzte, eta bizirik iraun dute orain dela urte gutxi arte, landatarrei buruz. Batzuk mantendu dira, hirietan indarra berreskuratutako tenak ere badira, baina beste asko betirako desagertzen ari dira, zoritxarrez. ◀

# Umeen Gabonetako parkeak

## Getxo

**Abenduak 23-Urtarrilak 4**

**Ordutegia:** 11:00-14:00 eta 17:00-21:00.  
Abenduaren 24an eta 31n, eta urtarrilaren 5ean; 11:00-14:00 eta 16:00-19:00.  
Abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean, itxita.

**Lekua:** Areetako Geltoki plaza. Sarrera: 3,50 euro (5 bidaia).

## Urduliz

**Abenduak 26-30**

**Ordutegia:** 11:00-14:00 eta 16:00-19:00.  
**Lekua:** Iparralde kiroldegiko frontoia.

## Lemoiz

**Abenduak 27**

**Ordutegia:** 16:30-20:30.  
**Lekua:** Armintzako frontoia.

## Leioa

**Urtarrilak 2-4**

**Ordutegia:** 11:00-14:00 eta 17:00-20:00.  
**Lekua:** Kandelazubieta.

## Sopela

**Abenduak 27-29**

**Ordutegia:** 11:00-14:00 eta 17:00-20:00.  
**Lekua:** Urko kiroldegia. Doan.

## Berango

**Abenduak 27-28**

**Ordutegia:** 11:00-13:00 eta 17:00-20:00.  
**Lekua:** Pilotalekua.

**Urtarrilak 3, Gazte parkea**

**Ordutegia:** 18:00-21:00.  
**Lekua:** Pilotalekua.

## Erandio

**Abenduak 17-18**

**Ordutegia:** 11:00-14:00 eta 16:00-19:00.  
**Lekua:** Erandiogoikoa gizarte-etxea. Doan.

**Abenduak 26-30**

**Ordutegia:** 11:00-14:00 eta 16:00-19:00.  
**Lekua:** Altzagako kiroldegia. Doan.


**Urtarrilak 2-5**

**Ordutegia:** 11:00-14:00 eta 16:00-19:00.  
**Lekua:** Astrabuduko kiroldegia. Doan.

## Barakaldo

**Abenduak 21-Urtarrilak 8**

**Ordutegia:** 11:00-20:00.  
**Lekua:** BEC. Prezio orokorra: 8 euro. Familia-bonua: 70 euro. Taldeak eta laguntzaileak: 7 euro.



*Politikaren Basoa*

KOLDO ITURBE MENDILIBAR  
EAJren bozeramailea

## Merezi du Gabonak ospatzea, horregatik bakarrik

**G**abonak hortxe daude, berehala izango ditugu mintzagai aro honetako birtuteak eta kritikak gure koadrilako solasaldietan, egunkarietako editorialetan, eta «salbatzaile» batzuen ahoetan. Askok dira erlijioarekin lotu eta tradizioan oinarriturik mespretxatuko dituztenak, eta beste asko alaitasuna eta zoriontasuna lekukotzat hartu eta goraiapatuko dituztenak.

Hori da benetako eztabaida? Hain sinpleak izan behar dugu? Non daude gure txikitako oroimenak? Non utzi ditugu etxeko argazkiak? Gure adimenak, gure arazoiaik zergatik ordezkatu behar ditu bihotzaren sentsazioak?

Nik umea izan nahi dut, haurtzarora bueltatu eta 25ean arbolapean zer ote dagoen irrikan, arrapaladan esnatu eta bertaratu. Txokolata jan betiko «erregeetako rosakoarekin» eta kristoren «letxe txarragaz» urtarrilaren 7an ikastolara bueltatu. Hori dana berreskuratu

nahi dut, berdin dit arrazoi zuzenik daukan, gizarte kontsumista baten «produktua» naizen. Gabonetako gure umearen aurpegia eta ilusioa izan nahi dut eta berak daukan Gabon aurreko izpiritua (erlijiosoa ez, joe!), nire etxeko bazter guztietan usaindu.

Olentzaroa nor dan, Erregeen kontra aritzen dan, bost axola!! Nik ere jostailuak nahi ditut, barre egin eta Gabonetako kantak abestu. Gabonetako «betekada» erraldoietan negar eta barre, lehengoak oroitu eta nirekin daudenekin kartetan jolastu...

Ez, hau ez da txotxolo izatea, hau ez da nostalgia, hau zuen etxean denok behar duzuen da, nirean gure umeak ekarri duena eta beti ere eskertuko diodana, gure amaren arima etxean dago, askoz ere pertsona hobekak gara. Umeak Gabonetako ilusioa bueltatu dit, haurtzarora bueltatu nau. Nor mintzen dugu horrela?

Eskerrik asko, «potxolustre». ◀





# Idatziozu gutuna Olentzerori!

Kaixo, Olentzero eta Mari Domingi

A spiral-bound notebook with a cream-colored cover and a dark purple spine. The notebook is open to a page with horizontal lines for writing. The page is mostly blank, with the text 'Kaixo, Olentzero eta Mari Domingi' written at the top.





Olentzero eta  
Mari Domingiren  
borda

Basoko bidea, 24  
Euskal Herria



Astekaria eguaztenero  
zure e-mailean; zozketak  
astean behin; zorion-agurrak,  
umeentzako txokoa,  
sailkatuak, eskelak...  
merkeago!

**Urtean,  
35€**

# hiruka zaitez!

*...eta abantaila askoz goza egizu!*



[hiruka.eus/harpidetza/laguna/](http://hiruka.eus/harpidetza/laguna/)

944 911 337

[hirukakoop@hiruka.eus](mailto:hirukakoop@hiruka.eus)

HIRUKA Koop.elk. Martikoena 16, 2. solairua. 48992 GETXO



# Jolasei lekua egingo die HIRUKAK, txikiek ere goza dezaten

**Zorionekoak gaztetxo uribekostarrak!** Urtariletik aurrera, Peloziri eta Maripurtzil bikiakaz bat eginda, jolasez jolas gozatu ahal izango dute, *Hirukira Olgetan* atal berrian. Garbine Ubedak orrialde bi eskainiko dizkie hilean behin, denbora-pasez beteta.

## Zuhaitzeko etxola

Etxetik paraje (hurbil), etxolatxo bat egin dute Maripurtzilek eta Pelozirik, lagunakaz elkartzeko. Baina, baina, hori da anabasa! Ea aurkitzen dituzun elementu hauek:



lore gorria



dortoka



biberoia



erlea

Eta ea aurkitzen dituzun elementu hauek ere:

- Txiklea
- Ordenagailu eramangarria
- Tximeleta bi
- Eskuargia
- Sagu bi
- Barraskiloa
- Ugaraxoa (igela)
- Plastikozko ur botila
- Hontza
- Txerrikumea
- Sugea



**Zirri-marra**  
Arte Tailerra  
**Gabonetako Tailerrak**  
Abenduaren 26tik urtarrilaren 5era  
**9:00 - 14:00**  
**3 urtetik aurrera**

Anboto 2, Getxo, Sarrera, Ainguruaran Etorbidetik  
Telf.: 944916186 - 688811696  
e-mail: zirrimararte@gmail.com





## Olgetan euskaraz



Barnaby Watson CC BY-NC-SA 2.0

Zer dira "Olgetan euskaraz" taldeak? Euskaraz jolastu eta kantatzeko talde txikiak (5-6 familia), eta helduen hizkuntzaren arabera antolatzen ditugu. Norentzat da? 2-5 urteko umeentzat, guraso eta familiako kideentzat. Noiz? Urtarriletik Aste Santura arte, astean behin, ordubetez. Non? Getxoko ikastetxeetan: Gobela, Romo, San Nikolas, Zabala eta Zubileta. Helburuak: jolastea, gozatuz ikastea eta helduen arteko harremanak ere euskaraz izatea. Informazioa eta izena ematea: [www.egizu.eus](http://www.egizu.eus), 644 277 155, [sendi@egizu.eus](mailto:sendi@egizu.eus)


## Sendi

Getxoko familietan euskara sustatzeko proiektua



# OTORDUA

Untxiak ez du barazkirik jan gura eta gorde egin da. Lagundu amari ezkutaleku-raino heltzen, belarrietatik heldu behar dio-eta.



**Abant**  
Psikopedagogia eta Eskola Orientazioa

Amaia Lores Eracruzkin

Basarrate 20, baxua. Algorta.  
Iturgitxi parkearen ondoan  
944.049.165 - 656.703.161  
xamaya1@euskalnet.net

S O I N U

**musika eskola**  
Eusko Uauriaritzak baimendua

Tellebe Kalea 34 - 48953 ALGORTA  
944 607 955 - 688 638 746  
soinu\_me@yahoo.es - soinu.musikaeskola.com

**ZUGAN**  
• PSIKOLOGIA •  
*Lehenengo hitzordua doan*

Psikoterapia (Haurrak, nerabeak, helduak)  
Tailerrak, animaliekin lagundutako  
eskuhartzeak eta bitartekaritza zerbitzua

[www.zuganpsikologia.com](http://www.zuganpsikologia.com)  
☎ 946 414 127  
Lizarre 6 behe solairua, Sopela



# gurearen zaporea



*Eusko Labelek marka ziurtagiako kalitate goreneko eta zapore bikaineko produktuak eskaintzen dizkizu.*

Gure baserritarrek eta arrantzaleek gure lurraldeko onena ateratzen dute zuretzat. Euskadin ekoiztako, eraldatutako eta/edo landutako nekazaritzako elikagaien produktuak.

Eusko Label erosita kalitate gorenekoa eskuratzeaz gain, gure ekonomia, gure lehen sektorea, gure paisaia eta gure kultura iraunarazten ere laguntzen duzu.

Gureak ematen duen gozamena.

**hazi**  
LABA, ERROTILU, OLI, HARINA, GAZPAGU, BARRAZKILU, OREINA, OREINA, OREINA, OREINA

**EUSKO LAURKAITZA  
 GOBIERNO VASCO**  
DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA, INDUSTRIA Y TURISMO  
 DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA, INDUSTRIA Y TURISMO

**Opariak gehien maite** dituztenak direna ezin ukatu. Horregatik, maitasun osoz egiten dizkiegun oparietan arreta berezia ipintzea beharrezkoa da, ikatzik jaso gura ez badugu! Eta bide batez, bertokoei ere beste zerbaitek oparitzeko aukera balia dezakegu...

# Oparizaleen artean,

## ARBI LIBURUAK

ERREALTATE AREAGOTUAN OINARRITUTAKO  
LIBURU ELKARRERAGILEAK

contact@arbibook.com  
www.arbibook.com

- 1 **ARBI eta Drake Herensugea** 14,82€
- 2 **ARBI eta Altxorraren Kutxa** 14,82€



Sexualitateen distirak

SAIOA HERNANDEZ CASTRO Sexologoa eta psikologoa

## Jostailu berriekin antzinako mezu sexistak

Umeen oparien bila, txikia nintzeneko jostailuekin gogoratzen naiz; izatez oso preziatuak dira 80. edo 90. hamarkadetako panpinak eta jokoak, baina amamak ganbaran gordetakoak egungo umeek ez dituzte nahi. Ez da harritzekoa, izena mantendu arren, alde handia baitago. Nire garaiko Pinypon panpinak begiak proportzionatuagoak zituzten, kolore gutxiago eta, bai, neskak zein mutilak peto bat janzen zuten. Gaur egun ordea begi handiak, koloretsuak eta arropa eta apaingarri askorekin saltzen dira. Spider- Man-i ere itxura aldatu diote, orain gihartsuagoa eta sabelak «tableta» islatzen du, gimnasioa gustukoa izango duelakoan.

Umeek jolasten dutenean sexu markak identifikatzen eta imitatzen ikasiko dute, merkatuak identitateak, desirak eta beharrak sortzen dituen bitartean. Gabonetan interes patriarkalek eta ekonomikoek bat egiten dute sexuen subkulturak bideratzeko ahaleginean. Neskek duten subkultura zuzentze-

ko «neskentzako» jostailu berriekin betiko mezuak bidaltzen dituzte; printzesak, ederrak, zaintzaileak, amak, famatuak. Teoria desberdinek hausnartzen dute herentzia genetikoak, berezko ezaugarri sexuak, kultura, matxismoa «mutilezkoen» gauzak zeintzuk diren.

Emakumezkoen eta gizonezkoen jostailuak, koloreak, arropak, interesak, eta abarrek balio desberdina duten kultura batean, arreta handiagoa jarri beharko genioke opariekin bultzatzen dugun sexuen subkulturari. Are gehiago, hausnartu beharko genuke ze neurritan gizonezkoen ereduak, eredu onena eta unibertsaltzat oparitzen dugun.

Badira sexuen arteko interesak eta elkarrekintzak lantzeko ipuinak eta jokoak ere; Ekilikua, Urtxintxa Eskola edo hainbat artisauk egiten dituztenak, esaterako. Jostailu sexistak oparitzen badituzu ere, baduzu aukera jolasaldian mezu berriekin jolasteko. ◀



## OVEJA CREATIVA

DISEINU GRAFIKO, ILUSTRAZIO ETA WEB ZERBITZUAK

Tel.: 946 533 095 | 639 922 258  
hola@ovejacreativa.com  
www.ovejacreativa.com

7 **Martin, Lea eta Ganbarako liburu magikoa** 14,99€



# oparizaleenentzat



6

## MUXUZ MUXU

UMETXO ETA UMEDUNENTZAKO PRODUKTUAK

Algortako etorbidea, 53 - Algorta

Tel.: 944 003 574

www.muxuzmuxu.com

3 **Panpinak eroateko motxila** 25€

4 **Egurrezko scalextric-a** 22,90€

5 **Umetxoentzako otzara** 30,20€

*Hainbat modelo prestatzeko aukera*

6 **Zaku termikoak** 27,90€



4



3



5

## OINAZPI

UME ZAPATA-DENDA

Sabino Arana, 51 - Leioa

Tel.: 944 004 481

8 **Xti botak (31-38), mutilentzat** 39,95€  
(Abenduak 31 baino lehen -%15)

9 **Yumas zapatilak (28-38)** 34,95€

10 **Xti argidun zapatilak (32-38)** 39,95€

11 **Atxa botak (27-32), neskentzat** 52,95€



11

10



9

8



## MEITAI MAITIE

UME-ERAMAILEAK ETA HAZIERA

Kale Nagusia, 1 - Zarautz  
Tel.: 635 700 986  
info@meitaimaitie.com  
www.meitaimaitie.com

- 12 **350ml Straw Cap Lifefactory Botila** (kolore ezberdinak): 23,00 €
- 13 **Arbel Liburu** (hamaika modelo): 20,00 €
- 14 **Mini MICRO Deluxe patinetea** (kolore ezberdinak) : 89,90 €



## GOBELAURRE

LIBURUDENDA

Gorbeia, 6 - Erromo  
Tel.: 944 642 513  
www.libreriagobelaurre.com

- 15 **Karaoke eramangarria** 45€
- 16 **Motxilak** (hamaika modelo) 35€tik aurrera
- 17 **Ezagutu mahai-jokoa** 32,90€  
Beste hainbat modelo dendan



## JULIA LEARRA

GINORDEKOAK. EUSKAL JANTZIAK

Juan Bautista Zabala, 3 - Algorta  
Tel.: 944 600 462

- 18 **Abarkak** 28,95€tik aurrera
- 19 **Txapela** 6,50€tik aurrera
- 20 **Alkandora** 23,75€tik aurrera
- 21 **Brusa** 22,70€tik aurrera
- 22 **Neska jantzia** 55,00€tik aurrera
- 23 **Tokilla** 32,95€tik aurrera

 **GetxoGasol**

GetxoGason  
Euskararekin  
bat!!

Getxo eta Berango artean  
94 430 15 00

**anderdeuna**  
IKASTOLA

Gatzarrine bidea, 47. 48600 SOPELA  
94 676 02 66 - 689 01 04 28  
info@anderdeuna.eus  
www.anderdeunaikastola.eus

**BETIKO**  
IKASTOLA

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA  
94 464 23 64/94 464 33 07  
info@betikoikastola.net  
www.betikoikastola.net

EUSKARAZKO PRODUKTUEN

# KATALOGOEA



# OPARITU EUSKARAZ

[www.katalogoa.eus](http://www.katalogoa.eus)

**KATALOGOEA**  
0-12 URTE

**GAZTEAK**  
12-18 URTE

MUSIKA      DVD FILMAK  
 ALDIZKARIAK      KOMIKIAK  
 LIBURUAK  
 JOSTAILU ETA JOKOAK  
 GURASO ENTZAKO MATERIALA

*Gabonetan  
oparitzeko  
behar duzun  
guztia!!*





# Lexuriren hankak

**Beroki ederra osatzen** dute hostoek belarraren gainean, baina ez da nahikoa Lexurirentzat: hotz ditu hankak. Negua hasteko dago, eta haizetxo fin dabil.



amina bat da Lexuri. Dakizuenez, ile luzea izaten dute laminek; gehienek ilegorria dute, baina gorrixka, beltza edo marroixka ere izaten dute. Lexurik beltz-beltza du. Beroa ematen die neguan ile luzeak laminei; nahikoa, oinetakorik ez erabiltzeko. Lexuriri, ez, ostera. Lamina batzuek barre egin izan diote: ez dute ulertzen zergatik den hotz. Hori gertatzen da batzuetan, ezta? Ulertu ez, eta barre egin. Lexuriri ez zaio gustatzen inork berari barre egitea; ez die batere kasurik egiten, gurago ditu lagun gozoak, basokoak.

Entzunda ere izango duzue oin palmatuak dituztela, ahatek dituztenen antzekoak. Palmatuak direnez, leku asko harzen dute lurrean, eta hotz gehiago igartzen dute Lexuriren oin-azpiek. Oin-puntetan ere ibiltzen da, baina zaila egiten zaio, estuak dituelako oin-puntak, eta jausi egiten da, lauzpabost pauso egin orduko. Joan den neguan, ilea ebaki, eta oinetako antzekoak egin zituen. Berotan izan zituen hankak, harik eta apurtu zitzaizkion arte, erabiltzearen erabiltzeaz. Aurton, gainera, ilea ez zaio hazi, berriz moztu eta oinetakoak egiteko beste.

Katagorriak, erbiak, azeriak bisitan etortzen zaizkio batzuetan; olgatzek ibiltzen dira elkarrekin, eta hotz denean, Lexurik hankak jartzen ditu haien lepoan, berogailu baten antzekoa da-eta. Gauez, euren habietara joaten dira, eta kobazuloan lo egin arren, hotz ditu hankak.

Zerbait egin behar du. Zer, baina?



## Iratxe Ormatza Imatz

Bakioko eskolan ikasi nuen txikitan, gero Mungiako institutuan. Handik Ingalaterrara joan nintzen ingelesa ikasten lehengo, eta Soziologia gero, York eta Kent-eko unibertsitateetan. Gauza berri asko ikusi eta ikasita etorri nintzen etxera, eta sormenari ekin nion. Urte batzuk ikasten eta beharrea eman ostean, itzulpengintza-masterra egin, eta alde egin nuen etxetik. Geroago, Hego Ameriketara sei hilabete egin nituen motxilagaz, eta han bititakoagaz liburua osatu nuen. Orduan hasi nintzen kaleratzen helduentzat: 18 ipuin ditut argitaratuta. Lau urteko alaba bat daukat; berarentzat eta zuontzat idatzi dut ipuina, zuen adina gorabehera.

Halako batean, berbetan ikusi ditu ume bi, barreka eta saltoka. Arbola batean ostendu da. Ez dute ikusi. Badakizue oso zaila dela laminak ikustea, oso-oso-oso ondo ostentzen direlako. Horretan onenak dira basoko bizidunen artean. Neska bat eta mutil bat dira, eta harrapaketa ere ibili dira, barrez.

Iluntzean, aldentzen hasi, eta atzetik joan zaie Lexuri, umeen etxeraino. Jakin-minez ikusi ditu kanpoaldetik afaltzen, haginak garbitzen, eta ohean ipuinak irakurtzen. Ez du sekula ikusi etxe barruan zer gertatzen den, beti ibili da-eta basoan.

Oin-puntetan jarri da Lexuri: gura izan du jakin zer ipuin dagoen irakurtzen Gillen. Baina, ene! lurreko hostoek kris-kris egin dute. Ondizek zerbait sumatu du, ohetik jaitsi, leihora joan, eta, zer dago bestaldean? Baten bat dago, antza. Sudurra leihoan zapaldu du, hobeto ikusteko, eta aaa! txiki isil bat bota du. Lexurik ere aaa! txiki eta isila bota du. Barrez hasi dira biak, bestearen aurpegia ikusitakoan.

Gillen ere oin-puntetan dago leihoan, zer gertatzen den jakin-guran. Galderez josi dute Lexuri, berak ere galdetuko luke, baina erantzun eta erantzun dabil. Oin urretsu biluziak erakutsi die, hotz dela esan dienean. Esan diote artilezko oinetakoak egingo dizkiotela, puntua egiten dutela: jertseak, bufandak, eskularruak, txanoak, txapelak. Ondizek, oinetako bat, eta Gillenek, bestea, eguzkiaren koloreko artile lodi-lodiagaz, berotan izan ditzan hankak. Haiei entzunez zelan egingo dituzten oinetakoak, berotzen hasi zaizkio hankak, eta pozik eta saltoka joan da basora, ilargiaren argiak lagunduta.

Handik astebetara oinetakoak eman dizkiote. Lexurik pozez jarri ditu; eguzkiaren dir-dira ikus daiteke haien artilean. Berotan ditu hankak orain, eta lagun bi ere egin ditu. Haien poza! Barrez daukate bihotza. Saltoka, korrikari ibili dira, eta kontu-kontari ere bai, asko dute-eta elkarriz esateko: zertan eta nogaz ibiltzen diren jolasean, eskolako gauzak, basokoak... Iluntzean, berriz, kobazulorako bidean, lagunei oinetakoak erakutsi, eta dena kontatu die irribarretsu Lexurik; denak poztu dira. Eta zu? ◀

# «Olentzero eta biok oso ondo moldatzen gara»

**Mari Domingi lanez** gainezka ibili ohi da egunotan, Euskal Herriko ume zein nagusi denentzako oparien banatze-lanak prestatzen Olentzerogaz batera. Tartetxo bat egin eta aitortu digunez, daborduko den-dena prest daukate Gabon-gauean etxez etxe ibiltzeko.

TESTUA: IKER RINCON MORENO / IRUDIA: HODEI TORRES



Gabon-gauean herriz herri ikusi ahal izango dugu Mari Domingi, Olentzerogaz batera.

Eguberriaren bezperan Mari Domingi eta Olentzero ikusteko aukera egongo da herri denetan, etxez etxe opariak banatzen hasi baino lehenago. Hala, abenduaren 24an kalejiran ibiliko dira kalez kale. Barrikan, ostera, egun bat lehenago ibiliko dira ume denen gozamerako. Iaz, Barrika aldean topatu genuen Olentzero, itsumustuan; eta, aurton, Mari Domingi aurkitu dugu inguruotan ere, gura ez dela. Lanez gainezka, arrapaladan eta galapaka zebilen, baina geldialditxo egin, eta hona HIRUKAgaz izandako elkarrizketa:

#### **Gabonak ate joka ditugu. Eskutitz asko jaso dituzue aurton?**

Oraindino ez; berandu dabilta umeak. Hala ere, gaur egun teknologia berriak, e-mail eta whatsapp bidez ere, baten batzuk jaso ditugu daborduko.

#### **Zer da eskualdeko neska-mutilek eskatu ohi dutena?**

Bertoko umeak nahiko kirolariak dira; hori dela-eta, gustukoa duten kirola egiteko materiala eskatu ohi dute. Ho-

rrez gainera, jostailu elektronikoek eskaerak ere gora egin du azken urteotan.

#### **Eta ondo portatu dira aurten?**

Denetarik egon da. Badirudi umeak apur bat lasaitu direla; iaz askoz ere hobeto portatu ziren, baina aurten... badago baten bat oso-oso txarto portatu dena. Horrenbestez, ikatz asko egin behar izan dugu horientzat.

#### **Zelan jakiten duzue nor portatu den ondo eta nor txarto?**

Olentzero eta bion laguna dugu Pintxon txoria, eta berak esaten digu hori guztia. Batzuetan ez ikusiarena egiten dugu; baina, beste batzuetan, ikatza utzi behar izaten dugu.

#### **Abenduaren 24ko gauean etortzen zarete gurera opariak banatzera. Gainontzeko egunak non ematen dituzue? Zertan diharduzue?**

Guk ere deskantsatu behar dugu; ezin gara urteko 365 egunetan lanean jardun. Hortaz, Gabonen ostean, deskantsatzen ematen dugu denbora handia. Halere, ez pentsa umeak zelatatzen ez

ditugunik, Pintxon baitago den-denei begira. Modu berean, Gabonetako kontu guztiak kudeatzen ibiltzen gara; izan ere, jostailuak gero eta garestiagoak dira eta umeek gero eta gauza gehiago eskatu ohi dituzte. Hori dela-eta, uste dugu neska-mutilek gauza bi baino ez dituztela eskatu behar: bata, eurentzat; bestea, solidarioa.

#### **Zelan egiten duzue gau bakar batean Euskal Herriko etxe denak bisitatzeko? Zelan antolatzen duzue lan hori?**

Laguntzaile piloak daukagu, eta esker-tzekoa da; oso ondo antolatzen gara. Gainera, teknologiak ere asko laguntzen du. Orain, askoz arinago mugitzen gara leku batetik bestera, eta ia-ia ordu bitan den-dena banatuta izaten dugu. Hala ere, baten bat bisitatu gabe uzten dugu eta, horrenbestez, bertara bueltatu behar izaten dugu...

#### **Zelan konpontzen zarete Olentzero eta zu? Eztabaidarik izaten duzue?**

Ea ba... izaera gogorrekoa da bera, baina oso ondo moldatzen gara elkar; akordioetara heltzen gara. ◀



*Tximiskeriak!!*

AITOR GARAGARZA CAMBRA  
Langilea

## Merry ChristMarx eta urte berri on

Aspaldiko!!! Zelan bizitza? Badago ikazkin bizitzeko modurik? Entzun dut sektorea gaizki dagoela, gaur egun ekoizpen gehiena Txinatik dator. Aspaldian, lagun batek esan zidan etorkizuna Koltanaren ekoizpenean egongo dela. Egia esan ez nion kasu handirik egin, baina aurreko egunean Evoleren programa ikusten nengoela, argia ikusi nuen. Horra hor etorkizuna. Pentsatu al duzu koltana ekoiztea?

Olentzero, jakin badakit, Ludismotik gertu ibili zarela eta teknologia berriak ez dituzula gustuko. Telebistarik ez duzu etxean, ezta telefono mugikorrik ere. Behingoz aitortuko didazu, oparien bilketa egiterakoan inoiz ez duzula izan tentaziorik teknologia berriak zer diren ikertzeko? Kontraesanez beteriko bizitza da zurea. Teknologia berriak arbuaiatu eta gero atez ate banandu, astoa beti lagun.

Ei Olentzero enteratu zara? Fidel Castro hil da. Bizardun bat gutxiago munduan. Azkar ibili Durangoko azo-

kan bestela laster agortuko dira bere liburuak Txalapartako salmenta-gunean. Uste dut Txalapartak oraindik bizirik dirauela, Elkarrek beregain hartu ez badu. Aparte, enteratu zara Sarri Kuban dagoela deportatuta? Zuk bazenekien, ezta? Eta isilpean gorde duzu urte hauetan guztietan. Nola konpondu zara opariak Kubaraino eramateko? Aita Noelekin hitzarmenik? Edo AEBko blokeoak ekiditen du? Blokeoak ekonomian, finantzan eta merkataritzan eragiten du, baina Gabonetako oparietan eragitea ere. Ez dute gupidarik Yankiek!

Bestalde, zelan zure harremana Mari Domingirekin? Kontuz ibili, bestela zure pribilegioak galduko dituzu. Egin kasu, kuoten legea bete baina protagonismoa zuk mantendu. Akaso bidali oparien bila, baina banaketa edo jende aurreko ekitaldietan protagonista nagusia zuk izan behar duzu. Egin kasu, lagun.

Besterik gabe, agur bero bat. ◀

# hirukagenda

Uribe Kostako astekaria

2016ko abenduaren 16tik 2017ko urtarrilaren 18ra arte



hiruka.eus



## Olentzero eta Mari Domingi, gurean

### Barrika

#### Abenduak 23, barikua

17:30 Antzerkia, udal-liburutegian.

19:00 Kalejira, liburutegiko plazatik udaletxeraino. Osteen, euska dantzen erakustaldia, oparien banaketa eta txokolate-jana (euria izatekotan, lehengo liburutegian egingo dira ekitaldi danak).

### Berango

#### Abenduak 24, zapatua

18:30 Kalejira Berangoetatik pilotalekuraino.

### Erandio

#### Abenduak 23, barikua

17:00 Kukularra. Jata, eskolako barruko «xapelan»; 19:30ean, opariak banatuko ditu Olentzerok.

18:30 Erandiogoikoa. Kalejira, auzoko kaleetan.

#### Abenduak 24, zapatua

17:00 Altzaga. Kalejira. 20:00etan, antzerkia Irailaren 23a plazan.

18:00 Astrabudua. Kalejira, Ignacio Aldekoa ikastetxetik Mendiguren plazaraino.

### Getxo

#### Abenduak 17, zapatua

18:00 Neguri-Gobela. Kalejira, auzoko kaleetan.

#### Abenduak 23, barikua

18:00 Andra Mari. Txixiburduntzia, txistulariak, trikitilariak eta fanfarrea, Malakate parkean.

18:00 Itzubaltzeta/Romo. Triki-poteoa.

19:00 Algorta. Ume bertsolariak eta Taberna ibiltaria taldea, San Nikolas plazan.

#### Abenduak 24, zapatua

12:00 Andra Mari. Kalejira, kiroldegitik Malakate parke-eraino.

13:00 Areeta. Bertsolariak, Eskoletako plazan.

17:00 Algorta. Kalejira, Benantziotik San Nikolas plazaraino.

17:30 Itzubaltzeta/Romo. Kalejira, Kalamua kaletik Santa Eugenia plazaraino. Euskal preso politikoan

aldeko Olentzeroa, Branka Herriko Tabernatik abiatuta, 19:30ean.

18:30 Areeta. Kalejira, Eskoletako plazatik hasita.

### Gorliz

#### Abenduak 24, zapatua

18:00 Kalejira, Ibarretatik pilotalekuraino.

### Leioa

#### Abenduak 24, zapatua

17:00 Herrigunea. Kalejira, Elexalde Errotatik Kultur Leioara.

17:30 Lamiako. Kalejira, metro-geltokitik hasita.

18:00 San Bartolome. Olentzerori harrera, bertoko kulturgunean.

18:00 Txorierra. Kalejira, Kulturguneraino.

### Lemoiz

#### Abenduak 24, zapatua

17:00 Andraka. Ondoetorria egingo diote Olentzerori, Rufino plazan.

17:30 Armintza. Kalejira, autobus-geltokitik frontoiraino.

18:30 Urizar. Kalejira, udaletxe zahararren aurrean hasiko dute ibilidea.

### Plentzia

#### Abenduak 24, zapatua

18:30 Kalejira, zubitik hasita. Gero, 19:30ean hasiko da herritar askok eta askok parte hartzen duen antzezpena.

### Sopela

#### Abenduak 24, zapatua

17:00 Kalejira, Larraabasterako Urgixieta plazatik udaletxeraino.

### Urduliz

#### Abenduak 24, zapatua

18:00 Kalejira, Igeltzera inguruko apaikaleku publikotik Elortza eskolaraino.





## Erandio

### Abenduak 17, zapatua

19:00 *Roller disko*. Altzagako lehengo azokan.

19:30 Oliver magoa, Erandioigoikoko gizarte-etxean. Euskaraz. Gonbidapenagaz.

### Abenduak 18, domeka

19:30 Ipuin-kontalaria, Erandioigoikoko gizarte-etxean. Euskaraz. Gonbidapenagaz.

### Abenduak 19, astelehena

18:30 Turroi-ikastaroa, Berbotsek antolatuta. Altzagako Bekoa ikastetxean.

### Abenduak 22, eguena

19:00 Triki-poteoa, Berbotsek antolatuta. Astrabuduko Josu Murueta plazaik abiatuta.

19:30 Musika-eskolaren Gabonetako Kontzertua, Erandioigoikoko Andra Mari elizan.

### Abenduak 26tik 28ra

19:30 Umeentzako antzezlana, Altzagako lehengo azokan. Euskaraz. Sarrera: 2 euro.

### Gabonetako Azoka egingo dute, abenduaren 17an eta 18an, Algortako sagardotegi alboan



Gabonetako Azoka, *Christmas market*, egingo du Quetenque tailerak, abenduaren 17an eta 18an. Algortako sagardotegiaren alboan izango da (Txiskiena, 2). Zapatuan, 17:00etatik 22:00etara zabalduko dute; domekan, berri, 10:00etatik 15:00etara.

### Urtarrilaren 2tik 4ra

19:30 Umeentzako antzezlana, Astrabuduko kultur etxean. Euskaraz. Sarrera: 2 euro.

## Getxo

### Abenduaren 30era arte

*Bosteko 2016* erakusketa, Algortako Torrene erakusketa-aretoan. Doan.

## Gabonetako hainbat ekitaldi, herriz herri

### Barrika

#### Abenduak 17, zapatua

18:30 Aita Goizton abesbatzaren Gabon-kantak, mezaren ostean.

#### Abenduak 29, eguena

19:00 Dokumentalen emanaldia: *Akabuko martxea* eta *Dominica*. Udaletxean.

#### Abenduak 30, barikua

11:00 Txotxongiloak. Ander Deuna kultur aretoan.

### Berango

#### Abenduak 22, eguena

20:00 Otxandategi dantza-taldearen erakustaldia. Berango Antzokian. Doan.

#### Abenduak 23, barikua

18:00 *Natura gara* pailazo-ikuskitzuna, euskaraz. Berango Antzokian. Doan.

#### Abenduak 30, barikua

18:00 *Antzokiko istorioak* antzezlana. Berango Antzokian. Doan.

#### Abenduak 31, zapatua

12:00 Gabonetako pilota-txapelketa: finalak. Pilotalekuan.

#### Urtarrilak 5, eguena

19:30 Erregeen kabaligata. Kultur etxetik pilotalekura. Ondoren, disko-festa DJ Xaiborregaz.

#### Urtarrilak 8, domeka

18:00 *Piramideen bila* antzezlana, Berango Antzokian. Euskaraz. Doan.

### Abenduak 23, barikua

20:00 Irutasun eta Areetxo abesbatzak, Algortako Irutasun Santuaren elizan.

21:00 Zine-kluba: *The lady in the Van*. Andres Isasi musika-eskolan. Sarrera: 2,90 euro.

### Abenduak 28, eguaztena

18:00 *Tirikikontu kontari* antzezlana, Areetako Andres Isasi musika-eskolan. Sarrera: 5 euro.

### Abenduak 29, eguena

18:00 *Pinocchio* antzezlana, Andres Isasi musika-eskolan. Sarrera: 5 euro.

### Abenduak 30, barikua

21:00 Zine-kluba: *Mustang*. Andres Isasi musika-eskolan. Sarrera: 2,90 euro.

### Urtarrilak 1, domeka

02:00 Bigarren *kampaikadak* eta 2017ari ondoetorri-jaiak, Algortako San Nikolas plazan. Zatoz mozarrotuta!

### Urtarrilak 5, eguena

Erregeen desfilea: 18:00etan Getxon (Andra Mari) eta Algortan; 19:30ean, Areetan eta Romon.

## Gorliz

### Abenduak 17, zapatua

20:30 Gabonetako abesbatzen kantaldia. Elizan.

### Abenduak 24, zapatua

Goizean Gabon-kantak Lirain abesbatzazag, herriko kaleetan.

## Leioa

### Abenduak 17, zapatua

20:00 Orpheo gamera-abiesbatza eta Leioako musika-banda, Kultur Leioan. Sarrera: 5 euro.

### Abenduak 23, barikua

21:00 Kontzertua: Ina Forsman eta Travellin' Brothers, Kultur Leioan. Sarrera: 6,12 euro.

### Abenduaren 26tik 28ra

18:00 Antzerki familiarren zikloa, Kultur Leioan. Sarrera: 3,75/5 euro (Bonua: 20 euro).

### Abenduak 29, eguena

18:00 Gabonetan antzerkita: *Viaje a la luna*. Kultur Leioan. Sarrera: 3,75/5 euro (Bonua: 20 euro).

### Abenduak 30, barikua

18:00 Antzerkia: *Euria* (Markelñe). Kultur Leioan. Sarrera: 3,75/5 euro (Bonua: 20 euro).

### Urtarrilak 5, eguena

18:30 Erregeei harrera, Sakoneta kiroldegian.

## Lemoiz

### Abenduak 22, eguena

17:30 Txotxongiloak (Toni La Sal), Urizarreko gelan.

### Abenduak 26, astelehena

17:30 Euskarazko jolasak, Urizarreko gelan.

### Abenduak 29, eguena

17:30 Gabonetako tailerra, Urizarreko gelan.

## Plentzia

### Abenduak 16, barikua

19:30 Bertso-jirak: Amets Arzallus eta Aitor Mendiluze; Oxabi taldeagaz. Elizako enparantzatik.

### Abenduaren 16tik 18ra

Gabonetako artisautza-azoka, Goñi Portalen.

### Abenduak 23, barikua

19:00 Gabon-kanten kantu-jira, Eliz enparantzatik abiatuta. Plentziako Kantagunek antolatuta.

## Sopela

### Abenduak 16, barikua

19:30 Triki-poteoa Sopelako pandero-joleakaz, frontoitik abiatuta.

20:00 *White lies* dantza-ikuskitzuna, Kurtzio kultur etxean. Sarrera: 3 euro.

### Abenduak 18, domeka

18:00 *Amour* antzezlana, Kurtzio kultur etxean. Sarrera: 3/5 euro.

### Abenduak 23, barikua

18:00 *Olenzero eta Amilaren sekretua* filma, Kurtzio kultur etxean. Euskaraz. Doan.

### Abenduak 26, astelehena

18:00 *Pinocchio* antzezlana, Kurtzio kultur etxean. Sarrera: 3/5 euro.

### Abenduak 30, barikua

18:00 Ballet erriusiarra, Kurtzio kultur etxean. Sarrera: 3/5 euro.

### Urtarrilak 1, domeka

13:00 *Urte barri, barri* antzezlana, Kurtzio kultur etxean. Euskaraz. Doan.

## Urduiz

### Abenduak 22, eguena

19:00 *Kondaira baten truke* antzezlana, kultur etxean.

### Abenduak 23, barikua

19:00 Asier Kidam magoa, kultur etxean.

# Zer opari egin ditza

**Ba ote dago** opariak jasotzea gogoko ez duenik? Askotan, benetan gure gustuko izango ditugu; besteetan... Baina, opariak beti opari! Oparia egiten duenak bere denbora ere oparitzen du, eta, sarri, zer bezain garrantzitsuak eta opariaren parte dira non eta nori erosi.

## **IÑAKI**



**BITXITEGIA**

Villamonte, 3 - Algorta  
Tel.: 944 302 345

- 1 **Lepokoa** 485€
- 2 **Erlojua** 30€tik gora



## **OSO**



**GIZONENTZAKO MODA**

Algortako etorbidea, 59 - Algorta  
Tel.: 653 721 056  
osalgorta@gmail.com

- 3 **Gizonentzako parka berdea** 367€
- 4 **Gizonentzako blucher zapatak** 139€



## **HER**



**EMAKUMEEN MODA ETA IRUDI-AHOLKULARITZA**

Algortako etorbidea, 53 - Algorta    Zalama kalea, 2 - Areta  
Tel.: 944 040 680    Tel.: 946 851 214  
heralgorta@gmail.com

- 5 **Emakumeentzako parka** 139,95€
- 6 **Hunter katiuskak** 125€



# akegu Gabonetan?

## SNOOPY

OPARI ETA OSAGARRIAK

Telletxe, 9 - Algorta  
Tel.: 944 600 972  
www.snoopyalgorta.com



- 7 Polar-manta 12,00€
- 8 Lastotxo-katilua 3,95€
- 9 Katiluak: Aita eta Ama 6,95€

- 10 Margarita boligrafoa 7,95€
- 11 Boladun giltzatakoa 9,95€
- 12 Etxeko zapatila ez-labaingarriak 12,00€



## BEREZI

ADIN GUZTIENTZAKO BARNEKO MODA

Telletxe, 15 - Algorta  
Tel.: 944 604 883



## AMETS

ZURE KAMISETA-DENDA

Telletxe, 13 - Algorta · Tel.: 944 601 031 · www.ametscamisetas.com



- 19 Marinel kamiseta 27,50€
- 20 Kukuxumusu kamiseta 21,90€
- 21 Txanoa 29,95€

## LUMALE BY URANGA



### MODA ETA APAINGARRIAK

Zabala, 12 - Algorta  
Tel.: 944 601 397



- 22 **Dots Bomber jaka** 19€
- 23 **Zorroa** 39€-tik aurrera
- 24 **Diru-zorroa** 27€-tik aurrera



## ADORE



### MODA ETA APAINGARRIAK

Telletxe, 5 - Algorta  
(Hirutasun kaleagaz kantoia)  
Tel.: 944 603 909

- 28 **Jeansak** 39,95€
- 29 **Jertse horia** 39,95€
- 30 **Jaka** 59,95€



## FLOVAR



### BITXITEGIA

Luis Bilbao Libano, 14 - Leioa  
Tel.: 944 633 195



- 25 **Erlojua** 30€-tik aurrera
- 26 **Urre arrosaz xaflatutako zilarrezko belarritakoak** 120€
- 27 **Urre arrosaz xaflatutako zilarrezko eraztuna** 155€



30

- 30 Txanoa 14,50€
- 31 Gona 27,50€
- 32 Zorroa 26,50€
- 33 Eguzkilo lepokoa 20€



33

## IRATI

### MODA ETA OSAGARRIAK

Torrene, 2 - Algorta  
Tel.: 944 911 271



31



32



- 34 Adidas zapatilak 99,95€ 79,96€

## KANTXA

### KIROL MODA

Torrene, 4 - Algorta  
Tel.: 944 911 882



- 35 Emakume-zapatilak 75€ 60€

## QUINSA

### MODA ETA OSAGARRIAK

Amezti, 10 - Algorta  
Tel.: 657 410 778

- 36 Japoniar estiloko bomber grisa 55€
- 37 Larruzko Vintage maleta 48€



37



36

**MAGA** **ZAPATA-DENDA ETA OSAGARRIAK**

Torrene, 4 - Algorta  
Tel.: 944 916 782



41 Zorroa 20€

42 Bota urdin ilunak 56€

43 Bota grisak 65€

44 Eskularruak 9€

45 Txanoa 12,95€

**BGOTXU** **GIZON ETA EMAKUME MODA**

Algortako etorbidea, 88 - Algorta  
Tel.: 944 062 540

38 Zorroa 55€

39 Kamiseta 34€

40 Eskuz egindako prakak 70€

**CAYVILLE** **MODA ETA APAINGARRIAK**

Euskal Herria, 1 - Algorta  
Tel.: 946 125 370 - 699 951 478



46 Parka 74,90€

47 Alkandora 17,90€

48 Jeansak 23,90€

49 Bufanda 14,90€

50 Eguzkitako betaurrekoak 29,90€

51 Lepokoa 13,90€

52 Zapatak 39,90€

**QUETENQUE****ALTZARIAK BERRIZTATZEKO TAILERRA**

Txiskiena, 2 - Algorta  
Tel.: 625 197 456



*Zaharberritu egizu zure altzaria, berria balitz bezain ederra egongo da! Opari-bonuak salgai! Hilean 45€ 2 ordu astean. Oinarrizko materialak barne.*

**DANATARIK** **MODA ETA OSAGARRIAK**

Enrique Urrutikoetxea, 2 - Sopela  
Tel.: 946 754 998

- 53** Zorroa 29,99€
- 54** Soinekoa 59,99€



- 55** Athletic-en erlojua 99€
- 56** Infinitu lepokoa 24€
- 57** Urrezko eraztuna 320€

**LOBON** **BITXITEGIA**

Akilino Arriola, 1 - Sopela  
Tel.: 946 765 406

**CIEN PIES** **ZAPATA-DENDA ETA OSAGARRIAK**

Akilino Arriola, 7 - Sopela  
Tel.: 946 760 894

- 58** Etxeko zapatilak 12€
- 59** Marteens botak 140€
- 60** All Star zapatilak 65€
- 61** Txarolezko Blucher-a 57,50€



**INTERSPORT**  
**GAZTAÑAGA**  
www.intersport.es

Prezio bereziak!

**Erretiroa hartuko dugunez, prezio bereziak**  
**Negoio hau hartu gura baduzu, deitu!**

Cierre por Jubilación. Posibilidades de traspaso



Amezti, 8. Algorta, Getxo. Tel: 944 910 605  
deportesg@euskalnet.net

Sabino Arana, 91. Leioa. Tel: 944 646 617  
intersportleioa@gmail.com

# Zer eta non jan: Ga

## LEHENENGO PLATERAK

### Burdinola

Tel: **946 852 137**. Basagoiti etorbidea 75, ALGORTA



### Foie gras-lasagna

**OSAGAIK:** Sagarra, foie gras, lasagna-pasta, pasak, intxaurrek, oliba-olioa, ozpina, izozkia, sagar konpota eta pasadun ogia.

**GURE ESKAINTZA:** Antzinako fabrika baten itxura duen taberna moderna aurki dezakegu Algortako erdialdean, San Nikolas plazaren izkina batean. Bertan, askotariko pintxoak eta errazioak aurki ditzakegu, baita momentuan egindakoak ere. Horien guztien artean nabarmentzekoa da foie grasez edo gibel-orez

egindako lasagna. Modu bitarra eska daiteke mokadu hori: pintxo gisa, 2 euroan; edo errazio osoa bezala, 14,5 euroan. Gabonetako egun denetan egongo da zabalik Burdinola taberna, eta Gabon Zahar gauean, gainera, San Nikolas plazan «bigarren kanpaiak» ospatuko dituztela iragarri dute.

### Motagane

Tel: **944 670 007**. Leioa-Unbe errepidea 34, ERANDIO



### Barraskiloak

**OSAGAIK:** Etxeko piper txorizeroa eta tipula gorria, pernila (urdaiazpikoa) eta barraskiloak.

**GURE ESKAINTZA:** Motagane Txakolina jatetxean «kilometro zero» filosofia darabilte: euren edo inguruko soroetako produktuak erabiltzen dituzte, sasoiari sasoikoak. Berbarako, sei indaba mota prestatzen dituzte, danak ingurukoak. Eguneko menua egiten dute, 13 euroan. Aste-akabuan, berriz, badauzka-

te 22 euroko menua eta 27 euroko menu berezia. Taldeentzako menuak ere eskaintzen dituzte. Horrez gainera, Errege-egunean bazkari berezia emango dutela jakinarazi dute, 38 euroan.

**ERRESERBAK:** Gutxienez, egun bat lehenago deituz. [www.txakolimotagane.com](http://www.txakolimotagane.com)

**AYOBERRI**  
Sagardotegia

**ERRESERBAK:**  
94 676 42 57

Urduliz-Butroe errepidea (Mendiondo auzoa,5)  
48610 URDULIZ  
[www.ayoberrisagardotegia.net](http://www.ayoberrisagardotegia.net)

**BIHAR** ARTISAU GARAGARDOA

ESKAERAK: 664.150.787 - [BIHARBEERS@GMAIL.COM](mailto:BIHARBEERS@GMAIL.COM)



# astronomia-gida

## Jolastoki

Tel: **944 912 031**. Makaleta etorbidea, 21, NEGURI



### Sasoiko barazkiak

**OSAGAIK:** Denboraldiko karduak, orburuak, ilarrak, tipulinak, patatak eta pernila (urdaiazpikoa).

**GURE ESKAINTZA:** Familia-giroko jatetxea da, 95 urte eta hiru belaunaldiko historia duena. Bezeroarekiko arreta da gehien baloratzen dutena; izan ere, ohiko bezeroak batzen dira bertan. Era berean, Jolastoki topagune bilakatu da kanpoan bizi eta jaietan etxera bueltatzen direnentzat. Etxearen ikurra da sasoi

produktuak eskaintzea, kartan zein menu denetan. Gainera, zero kilometroko gaiek garrantzia dute. Gabonetan, taldeentzako menu bereziak dituzte.

**ERRESERBAK:** Telefonoz eta Internetez, 48 ordu lehenago. [aboa@jolastoki.euskalnet.net](mailto:aboa@jolastoki.euskalnet.net) [www.restaurantejolastoki.com](http://www.restaurantejolastoki.com)

## Gorrondona

Tel: **944 076 918**. Areatza hiribidea, 54, PLENTZIA



### Idi-buztan paella

**OSAGAIK:** Etxeko haragi-saldak, arroza, buztana, ardoa, barazkiak plantxan, sasoi perretxikoak, buztan-zukua, gatza, olioia.

**GURE ESKAINTZA:** Leku pribilegiatuan dago Gorrondona, portuaren alboan. Bista ederrak ditu eta terraza haizetik ondo babestuta dago. Sukaldaritza tradizionalen oinarrituta eta karta modernoa, arrazoizko prezioan; giro atsegina lortu dute. Gabonetan, ohiko hasierako platerak, paella eta etxeko

enpanadakaz batera, askotariko azkenburukoak izango dituzte. Bertan jateko ez ezik, etxera eroateko ere prestatzen dituzte paellak zein enpanadak.

**ERRESERBAK:** telefonoz zein bertan. Udan, talde handiek 24 ordu lehenago eskatu beharko dute lekua gordetzea.

## Zabalera

JOSEBA SANTXO URIARTE Filologoa, idazlea, ikertzailea

## Dringilin-dron... eta besteak hor konpon?

**G** abonak heldu dira, zorioneko eguberriak; hirietako kaleak argi-egarriz omen zeuden, dendak eta tabernak bezero minez, albistegiak bake-iragarpenen eta itxaropen-mezuen aiduru... eta gu? Zeri edota zeren begira ote gaude gu?

«Dringilin-dron, gaur Gabon, tripea betea jaukat eta besteak hor konpon!». Tradiziozko Gabon-kanta ezaguna dugu hori, bai, baina ezin esan solidarioegia denik...

Nik aurtun ez daukat tripa larregi betetzeko asmorik, besteak beste -eta gure eskualdeko esaera jakingarri batek dioskunez-, «larra, txarra» dugulako. Baina buruari asko eragin barik ere, kasu andana datorkit akordura Gabonotan tripako zorriak baretzeko aukera handirik izango ez duen jendearenak, edota honegatik edo hargatik, Gabon sasoi tripak polito nahasirik emango dutenenak. Askok dira, izan, goseak, gerrak, matxismoak, botere-nahiak, mendeku-goseak, eta abarrek jotako sabelak eta nahasiriko tripak, eguberriak egu-

berri. Eta alderdi horretatik, desegokia dirudi urte amaieran «besteak hor konpon» abesteak.

Baina bestetik, badago loturarik egoera txarrak irauli gurarren eta aldarre onaren artean: «umore bako iraultza, gorrin-goko bako arrautza». Bai eta pozaren eta jatearen artean ere: «Hagina dabilenean, tripea pozik». Eta horretan euskaldunok kontuan hartzeko modukoak ei gara, jan osteko giroa maite baitugu: «euskaldunok janda poz». Halandaze, ez noa inori Gabonaldia otordu on bat eginez ospatzeko gogoia kentzera. Ezta hurrik eman ere!

Hori bai, ohiturak ohitura, jakiak jaki eta tripak tripa, nik aurtongo Gabonetan gure betiko Gabon-kanta horren bertsio egokitu hau abesteko asmoa daukat, neure urdailaren baimenez, eta injustiziaren indigestioa pairatutako guztien elkertasunez:

«Dringilin-dron, gaur Gabon, tripa guztiak asetu arte gaitzela konpon!». ◀

**ITSASOKOAK ETA LURREKOAK**

## Tamarises Izarra

Tel: **944 910 005**. Ereaga kaia, 4, 1. ALGORTA

### Erreboiloa

**OSAGAIK:** Erreboilo freskoa, patata, olio, gatza, saltsa berdea eta saltsa bilbotarra.**GURE ESKAINTZA:** Tamarises Izarra jatetxeak apirilean bost urte beteko ditu, euskal gastronomia onenaren tradizioa eta goi-mailako sukaldaritzaren berrikuntzak uztartzen ditu. Sasoian sasoiko bertoko produktuak dasta daitezke, bista ikusgarriez gozatu bitartean. Menu bereziak eskainiko ditu Gabonetan, eta

are bereziagoa izango da Gabon-eguneko. Kasu denetan, kalitatea bermatuta dago.

**ERRESERBAK:** Aste-akabuetarako, komeni da aurrerapen nahikoagaz eskatzea. Erreserbak telefonoz zein webgunean egin daitezke.[www.tamarisesizarra.com](http://www.tamarisesizarra.com)

## Juan Mari harategia

Tel: **944 644 125**. Mesedeetako Ama 31, AREETA

### Txerrikumea

**OSAGAIK:** Txerrikumea, gatza, ura, Modena ozipina eta berakatza.**GURE ESKAINTZA:** Gabonetan arineketa ibili ohi gara, aurrera eta atzera, sendi zein lagunakaz partekatuko ditugun bazkariak antolatze guran. Zeregin horretan laguntzeko, Juan Mari harategiak aurrez prestatutako hainbat plater eskaintzen ditu, esaterako askotariko kroketak, piper beteak eta kanapeak.

Horrez gainera, beste plater berezi batzuk ere baditu aukeran: txipiroiak beren tintan, bakailaoa pil-pil erara, buztana saltsan, txerrikume errea, arkume errea eta ahate beteak, besteak beste. Eta zelan ez, prestatu bako askotariko haragi-piezak ere bai, norberak gura duen modura prestatzeko etxean.

## Dandaka

Tel: **944 530 006**. Avanzada errepidea 35, ERANDIO

### Txuleta

**OSAGAIK:** Behiaren edo idiaren txuleta, piper gorriak, patatak eta gatza.**GURE ESKAINTZA:** Inguruan ondo preziatua da Dandaka jatetxeke eguneko menua; aste barruan ematen dute, 10'80 euroan. Aste-akabuetan, oster, karta daukate. Taldeentzako menuak ere prestatzen dituzte, eskatuz gero. Sukaldaritzaren tradizionala eskaintzen dute, menu landuak dira, baina euren espezialitate

okela da. Mokadutxoak jan gura duenarentzat, gainera, barran pintxoaren eskaintza zabala daukate. Aurten, Errege-egunerako menu berezia egingo dute.

**ERRESERBAK:** Komeni da erreserba egitea; aste-akabuan joateko, batez ere. [www.dandakajatetxea.com](http://www.dandakajatetxea.com)

## Gure Etxea

Tel: **944 636 880**. Aurrezki Kutxa 14, ITZUBALTZETA

### Atun-xaflak

**OSAGAIK:** Atuna (Bermeoko Alakrana ontziak harrapatutakoa), nafar oliba-olioa, Eskoziako gatza, tipulina eta sesamoa.**GURE ESKAINTZA:** Gure Etxea taberna Itzubaltzeta-Romoko erdigunean kokatuta dago, Aurrezki Kutxa kalean. Ezaguna da oso bere sukaldaritzaren tradizionala. Pintxoak, errazioak, bokatak eta hanburgesak ondo ezagunak dira inguruan. Datorren urtean 40 urte beteko ditu taberna mitiko honek.Informazio gehiago gura baduzu Interneteko *Facebook*-en euren gunean topatuko duzu.**ERRESERBAK:** Garrantzitsua da erreserba bizpahiru egun lehenago egitea, gutxienez. Izan ere, lekua azkar betetzen da, aste-akabuan joan gura baduzu, batez ere. Beraz, arin ibili!

## Karola Etxea

Tel: **944 600 868**. Aretxondo 22, ALGORTA



MENU  
BEREZIAK

### Zapo-enborra

**OSAGAIK:** Itsas zapoa, bieirak, boletusak, porruak, patatak eta udako trufa.

**GURE ESKAINTZA:** Algortako Portu Zaharreko erdigunean aurki dezakegu marinela-izae-radun egundoko jatetxea: Karola Etxea. Bertan, itsasotik ekarritako produktu fresko-freskoak dasta ditzakegu, berbarako zapo-enborra Karola erara, 25 euroan. Gabonei begira, ohiko menuz eta kartan

aurki daitezkeen plater guztiez gainera, taldeentzako menu berezi bi izango dituzte aukeratan. Horietan eskaintzen dituzte lehenengo platerak, haragia ala arraina, postrea eta ardoa; 30 eurotik aurrera.

**ERRESERBAK:** Komeni da egun bi lehenago egitea, gutxienez.

## Motabarri

Tel: **944 670 768**. Leioa-Unbe Errepidea, 32, ERANDIO



MENU  
BEREZIAK

### Iberiar entsalada, txuleta

**OSAGAIK:** Behi-txuleta. Askotariko urazak, onddo beltzak, pernil iberikoa, gatza, modena murriztua eta oliba-olioa.

**GURE ESKAINTZA:** Datorren urtean 25 urte beteko ditu Motabarrik. Egunero zabaltzen dute, 06:30etik 23:00etara (aste-akabuetan, beranduagora arte). Eguneko menua eta menu bereziak ematen dituzte, baita afariak ere (aste barruan, en-karguz). Plater kuttuna indabak izan dira, baina, gaur egun,

berritasunen artean, badute garbantzuak buiagaz, esaterako; plater preziatua da bezeroen artean. Gabonetan menu berezia emango dute, 25 euroan.

**ERRESERBAK:** Komeni da erre-serba egitea, whatsapp bidez ere egin daiteke: 619 622 974 [www.restaurantemotabarri.com](http://www.restaurantemotabarri.com)

## La Dupla

Tel: **946 409 946**. Alangobarri 9, ALGORTA



MENU  
BEREZIAK

### Haragi-parrillada

**OSAGAIK:** haragi-erreka, txahal-erraia, txahala, txorizo kreolea, barazki-odolostea, patatak eta tximixurri-saltsa.

**GURE ESKAINTZA:** Euskal eta argentinar sukaldaritzak lokal handia dauka Algortan, talde zabalak erraz hartzeko. Gabonetan, ohiko parrillada-menuaz gainera, menu berezi bi dituzte, sarreretan ezberdinak. Bigarren plateran, haragi-parrillada, bakailaoa bizkaitar eran eta entrekota dira aukerak. Etxeko

postrea eta krintza barne daude. Txuletoia ere badago, gehigarri batez. Halere, nork bere menua ere sor dezake.

**ERRESERBAK:** Gabonetan komeni da eskaera hiru egun lehenago egitea. Telefonoz, e-mailez eta Facebook-ean egin daiteke. [ladupla.vascoargentino@gmail.com](mailto:ladupla.vascoargentino@gmail.com)

## Portu Zaharra

Tel: **944 602 033**. Portu Zaharra 35, ALGORTA



### Txipiroiak beren tinta

**OSAGAIK:** Txipiroiak, kipula, piperra, tinta eta txakolina.

**GURE ESKAINTZA:** Itsasoari begira dagoen taberna dugu Portu Zaharra; hori dela-eta, zelan ez, kostaldeko sakontasunetik eta bere ortuetatik ekarritako produktuak egindako platerak eskaintzen ditu bertan; berbarako, txipiroiak beren tinta, 9 euroan. Modu berean, Portu Zaharra tabernak bere

alde solidarioa ere badu. Izan ere, Bizkaiko suhiltzaileen talde batek Saharan eskola-materiala banatzeko ibilbidea egingo du laster; horiei laguntzeko guran, pintxo solidarioak egongo dira salgai egunotan, 1,50 euroan. «Horiekaz lortutako diru guztia proiekturako izango da», azaldu dute tabernakoek.

## POSTREAK

## Zurikaldai gozotegia

Tel: **944 911 487**. Neguri hiribidea 9, NEGURI



### Karakas turroia

**OSAGAIK:** Venezuelako kakaoa, gaztainak eta esne kondentsatua.

**GURE ESKAINTZA:** Ohi den legez, turroiak eta Gabonak elkarri lotuta datoz. Hala, sasoi honetan, Neguriko Zurikaldai gozotegiak askotariko turroiak eskaintzen ditu, mimo handiz eta kalitate ezin hobegoko osagaiez egindakoak. Nabarmentzekoa da gaztainakaz eta Venezuelako kakaoagaz egindako Karakas tu-

rroia. Hala ere, bestelakoak ere badauzkate, berbarako: Koñak eta Kadiz urriak, besteak beste. Den-den prezioa da 45 euro kilogramoa; jakina, tamaina ezberdinetan erosteko aukera ere badago. Turroiez gainera, askotariko gozoak ere egiten dituzte, Gloriak, glasatutako frutak eta tartak, besteak beste.

## La Croissanterie

Tel: **944 608 648**. Jata kalea 1, ALGORTA



### Etxeko arroz-pastela

**OSAGAIK:** Hostopila, gurina, azukrea, arrautzak eta esnea.

**GURE ESKAINTZA:** Otorduen osteko mokadu gozoak eskuratze-ko egundoko lekua da Algortako La Croissanterie gozotegia. Askotariko pastelak eta opilak eskaintzen ditu; esaterako, hemen ikus dezakezuen arroz-pastela, etxean egindakoa modukoa. Gabon-sasoian bete-betean murgilduta gaudenez, ohikoa

den beste jaki bat ere aipatu barik ezin utzi: errege-erroska izugarriak ere eros daitezke Bidezabal inguruan kokatuta dagoen denda honetan; den-dena egin berriak.

**ERRESEBAK:** Errege-erroskak erosteko egun batzuk lehenago enkargua egin beharra dago.

## Kurkudi taberna

Tel: **944 802 655**. Sabino Arana 82, LEIOA



### Sagar-tarta

**OSAGAIK:** Hostorea, pastel-krema, arrautzak, irina, arto-irina, sagarrak, muxika-marmelada, azukrea eta azukre-hautsa.

**GURE ESKAINTZA:** Kurkudi Herriko Taberna zabalik dago, berriro ere, eta itxura berriagaz, gainera. Astelehenetik domekara hurrera zaitezke, berbarako, eguneko menua jatera: egunero ematen dute, 10,50 euroan. Horrez gainera, eskaintza berezia daukate: zoaz Kurkudira bazkaltzera eta 10. menua doan

emango dizute! Tarta-eskaintza probatzeko aukerarik ez galdu, kafe gozoaz lagunduta. Afari eta bazkari bereziak ere ematen dituzte, enkarguz; eta, aste-akabuetan, bokatak.

**ERRESEBAK:** Afaritarako aurretik deitzea beharrezkoa da; ez, ordea, bokatak eskatzeko.

## Très Bien gozodenda

Tel: **946 526 670**. Basagoiti etorbidea 49, ALGORTA



### Azenario-tarta

**OSAGAIK:** Azenarioa, sagarra, arrautzak, intxaurrak, kanela, olio begetala, irina, azukrea, gazta-krema eta banilla.

**GURE ESKAINTZA:** Azenario-tarta da Très Bieneko bezeroek gehien estimatzen duten jatekoa, baina etxeko gozotegizako sormen-txoko horrek eskaintzen duen aukeretakoa bat besterik ez da. Ainara, Ainara eta Sherezade euskal jatorriko hiru lehengusina venezuelarrek Gabonetan prestatuko dituzte

gazta-tartak eta urdaiazpiko-ogi gazi-gozoak, besteak beste. Halere, lokalean ardo, kafe eta teen karta zabala daukagu, nor bere kontura gozatzeko.

**ERRESEBAK:** Oro har, egun bi lehenago eskatzea beharrezkoa da; Gabonetan, 3 egun aurretik. [www.tresbien.es](http://www.tresbien.es)

Areetako La Granja Selecciónek zenbait ardo gomendatu ditu Gabonetan gozatzeko. Olalla Elorriaga sommelier eta ardote giko buruak egin du aukeraketa.

# Gabonetarako ardo egokiak



#### CARABALLAS VERDEJO

Kopan garbi eta dirdiratsu agertzen da, kolore horiz eta distira arin berdez. Negar oparo eta fina dauka. Sudurrean sendo, konplexu eta fina, ahoan eraso zuzen eta gozoa dauka.



#### ALMIRAZ

Toroko ardo beltz honek ondo egituratutako frutagustu eta usaina uzten ditu. Tanino leunakaz batera, orekatutako adierazpena dauka, oroi pen sendokoa.



#### LÁGRIMAS DE MARÍA

%100 tempranillo mahatsakaz egindako erreserba, 36 hilabete ondoren, haritz gorria eta botila ezagutu ditu. Hala, zur-kutsua nabari daiteke fruta helduen gainean.



#### SIERRA CANTABRIA CUVÉE

Guardiako ardo beltzak lehen mailako izaera nabarmena dauka. Oso aromatsua da eta babestuta dago dotoretasuna eman dion ontze laburratik. Halere, fresko eta bizia da.



#### DELAMOTTE BRUT

Kolore horidun xanpaina, urre distirakaz, apartua eta burbuiladuna. Sudurrera menbrillo-, sagar- eta kafe-usainak ditu. Ahoan bizia da, amaiera orekatu eta gozoagaz.

Elorriagak akordura ekarri duenez, bertoko ohiko dena espezializatuetan kontsumitzeak ahalbidetzen dio erosleari «aholkularitza-zerbitzu pertsonalizatua» jasotzea. Horren adibide dira goian berak gomendatutako ardoak. Hala, Areetako La Granja Selecciónen hamar kadak daroatzate elikagaigintzan, kalitatezko produktuak bultzatzen, bai bertokoak zein nazioartetik ekarritako gai

onenen aukera. Izan ere, ahalegintzen dira artisauek sortutako elikagaiak eskaintzen, «izpiritua izaten» baitute. Elorriagak dioenez, euren azken helburua oreka batean datza, «bezeroa gogobetetzea» baita garrantzitsuena, ingurumena zaintzeagaz batera. Gabonetan ere, sommelier baten aholkularitza-zerbitzua eskainiko dute, ardo berriak ezagutarazteko edo ezkontzak proposatzeko. ◀



## La Granja

*Ez galdu Gabonetako gure etxeko espezialitateak: oilo trufatua eta pularda barrubetea*

Adiskidetasun kalea, 15. AREETA  
Tel: 944 63 78 60  
[www.lagranjaseleccion.es](http://www.lagranjaseleccion.es)



*Hitza emanda*

**Eta urtea amaitzeko**, ALBEko bertsolariei, HITZA eman beharrean, HIZTEGIA eskatu diegu, oraingoan bertsolari bakoitzak aukeratuko baitu 2016. urtea bere iritziz ondoen laburbiltzen duen hitza, harexeri kantatzeko. Zenbat buru, hainbat goiburur! Gozatu Gabonetako gure bertso-oparia!

# Urteari begira, hitza emanda

**JOSU LANDETA EGURROLA**  
Bertsolari getxoztarra

## Ahalegina



*Izerditan emanda  
makina bat bira,  
maldan neke ugari  
jasan behar dira.  
Bidezidor latzetik  
zu ez erretira,  
noizbait ikusiko da  
daukazun distira!*

**KERMAN DIAZ FRANCO**  
Bertsolari getxoztarra

## Aldaketa



*Zalantza, atsekabe  
ta pozen testigu,  
berrikuntzak guztia  
bera egin du.  
Mundu honetan lasai  
ez gara bizi gu,  
aldaketak beldurra  
ematen baitigu.*

**FREDI PAIA RUIZ**  
Bertsolari algortarra

## Alepo



*Bi mila ta hamasei  
urtetik gordeko  
dudan irudiari  
zerbait esateko,  
Mekarantza begira  
jartzea hobeto:  
garenaren ikurra  
izan da Alepo!*

**UNAI MENDIBURU VALOR**  
Bertsolari algortarra


## Amaiera



*«Gobernuden» urte hau  
pasa zaigu arin,  
nahiz onena ez izan  
amaitu da, enfin!  
Iraultzan jar dezagun  
gogo ta ahalegin,  
bi mila hamazazpia  
hobea izan dadin!*

**JAGOBÁ PEREDA TXOPITEA**  
Bertsolari getxoztarra

## Astak«irten»



*Rajoy berriro irten da  
pozik bozketatik,  
Trump garaile ere bai  
Ameriketatik.  
Irteteko asmorik  
ere ez neukan nik...  
jada edan dut sei ardo  
ta hamaika gin-tonic!*

**UNAI ANGULO ALDEKOA**  
Bertsolari algortarra

## Azebarri



*Azebarri sortu zen  
orain hiru urte...  
lokal berri bat dugu,  
kulturaz da bete;  
euskaldunon bilgune,  
lagunen elkarte,  
euskara dastatzera  
hurbil zaitezkete!*

**JOSEBA SANTXO URIARTE**  
Bertsolari getxoztarra


## Beroa



*Oso urte beroa  
joan da aurtengoa:  
politikan, naturan,  
kulturan mamboa!  
Gurean jarraituta  
nahia hegan doa:  
hurrena, gogoia non,  
han jarri zangoa!*

**AITOR ESTEBAN ETXEBARRIA**  
Bertsolari itzurbaltzarra

## Bisustua



*Trump putretzarra hegan  
ta Fidel urpean,  
Altsasun 8 atxilo  
mozkor 2 trukean;  
urte bisustu ostean  
eske negutean:  
sustu gitxiau nahi duz  
hurrengo urtean!*

**GALDER BILBAO MARTINEZ «TXAPI»**  
Bertsolari udondotarra

## Errelatoa



*Gabonetan gutuna  
bidaltzear nago,  
Olentzerori eskatuz  
hemengo ta hango.  
Ikatz-zaku bat amets  
betetzear dago:  
«Bi mila ta hamazazpi,  
etorri oparo!».*

**PERU VIDAL GURRUTXAGA**  
Bertsolari leiozatarra

## Esperantza



*Kartzelak bete-bete,  
zer da ba bengantza!  
Langabezia ere  
ez doa beherantza;  
urte hau oso ona  
ez da izan antza,  
baina hurrengorako  
dugu esperantza.*

**DANIEL DE MIGUEL AVECILLA**  
Bertsolari algortarra

## Komandantea



*Triste utzi gaituzu  
bi begiak umel,  
umezurtz bagina lez,  
barrukoa zimel;  
baina segi beharko  
gureari fidel,  
agur eta ohore,  
betirarte, Fidel!*

**JONE URIA ALBIZURI**  
Bertsolari getxoztarra

## Kuba



*Betiko ez zen inor  
etorri mundura  
ta betiko ez doa  
inor izkutura.  
Aurten horren lekuko  
izan dugu Kuba:  
Fidel joan da, baina  
sarri agertu da!*

**JOSU ARROYO IZKOA**  
Bertsolari algortarra

## Liderrak



*Fidel bakean joan da,  
Donald etortzean.  
Asko hunkitu ginen  
Arnaldo askatzean.  
Marianok eusten dio  
Espainia aldean.  
Berri gazi-gozoak  
liderren urtean...*

**IMANOL URIA ALBIZURI**  
Bertsolari getxoztarra

## Opariak



*Gabonetan saiatu  
arren ahazten penak,  
harrapatu ohi gaitu  
erosketen trenak.  
Baloratu ditzagun  
inguruko denak,  
ezin dira erosi  
opari onenak!*

**INAZIO VIDAL GURRUTXAGA**  
Bertsolari leiozatarra

## Politika



*Otegi askatu ta  
Rajoyk irabazi,  
Trumpek Ameriketan  
bazterrak nahasi,  
Castrok Kuban umezurtz  
utzi ditu kasi...  
Mundua ez ote da  
eraldatzen hasi?*

**ITXASO PAYA RUIZ**  
Bertsolari algortarra

## Presoak



*Urrun bezain beteta  
presoen zerrenda;  
orain dela 10 urte  
antzeko ez zen, ba?  
Nola ez gara egongo  
geuretik irtenda?  
Batzuetan denbora  
atzera joaten da!*

**PAULE LOIZAGA LEGARRA**  
Bertsolari sopoloztarra


## Sahara



*40. urtez  
bizi duten dema,  
herri borrokalaria  
zahar baten problema.  
Bertara joan arte  
ez dut jakin dena:  
basamortu huts batek  
bete zaitzake(e)na!*

**PERU DE PEDRO LARREA**  
Bertsolari getxoztarra

## Trantsizioa



*Bi mila ta hamaseian  
hainbat aldaketa:  
Otegiren buelta ta  
Trumpen hautaketa,  
katalan ta euskaldunen  
plan nahiz galdeketa...  
Adi, hurrengo urtean  
segiko du eta!*

**BEÑAT VIDAL GURRUTXAGA**  
Bertsolari leiozatarra

## Txapelketa



*Lehia, poza, tristura,  
prestaketa, sena,  
antolakuntza, plaza,  
aukera, problema,  
lagun giroa, kezka,  
drama, gozamina...  
asteburu honetan  
amaituko dena!*

**IÑIGO KORTAZAR ELIAS**  
Bertsolari getxoztarra

## Vicrila



*Lamiako aldera  
noizbait zen iritsi,  
beiragintzan hor dabil,  
a zer harribitxi!  
Beharginen geroa  
ezin da eraitsi,  
horregatik diogu  
Vicrila ez itxi!*

**ARRATE ILLARO ETXEBARRIA**  
Bertsolari getxoztarra

## 366



*Euskararen eguna,  
minbiziarena,  
autorik gabekoa  
eta amarena...  
joan zaigu aspaldiko  
urte luzeena,  
poz zein min egunero  
argitu duena!*

# Pentsatu zeure buruarengan

**Garenaren isla ere** badira ile-kontuak, ispilura begiratzea baino ez dago horretaz konturatzeko. Bakoitzak bere aukera egiten du, baina esku ona dutenen aholkuak ere lagungarriak izan daitezke. Horrenbestez, hona bertokoen eskaintza.

**U**rlia zapatuero doa, astean behin dauka hitzordua; sandiak zita ipiniko du, ekitaldi bat izan orduko; berendiak oporraldi bakoitzean egingo du bisi-

ta... Eta, hara! Aurtongo Gabonetan izango dira ekitaldi bereziak, zapatuetan batzuk, eta oportretan! Horrenbestez, hona hemen orraztu, moldatu, garbitu, ebaki, atondu, tindatu... Az-

ken finean, geure burua jagoteko eta gure gustura ipintzeko Uribe Kostako, berto-bertoko, egundoko eskaintza zabala umeei, gazteei, andreei, gizoni, den-denei begirakoa. ◀



**PELUQUERIA Kati**  
Kati  
ile-apaindegia  
Erreserba egizu  
Artatzagane 35 - Leioa  
☎ 946 410 486  
f KATI Peluqueria



**ETXENAUSIA**  
Maila altuko ile-apaindegia  
NEKANE - ANE  
Algortako etorbidea 86 - Getxo  
94 460 37 66



**IGO**  
PELUQUERIA  
Itziar Olabarria ile-apaindegia  
Amesti, 7. 48991 - Algorta (Getxo)  
944 910 380



**CENTRO MIXTO**  
ILE-APAINDEGIA ETA ESTETIKA  
NOBEDADEAK!  
Gorputz eta aurpegi-tratamenduak  
Depilazioak: hotza, beroa eta laser  
Erribera, 23 - Plentzia  
☎ 946 774 147



Krisalida

JOXE BELMONTE F. DE LARRINOA  
Idazlea

## Aurtengo Gabonetan ere ez dut angularik probatuko

**A**urtengo Gabonetan ere ez dut angularik probatuko, baina ez zait inporta, noizean behin legatzari botatzen dizkiodan gulak janda nahikoa dut. Ez diot horregatik gorroto izango angulekin enpatatzeko beste duen aberatsari. Ni neurearekin pozik.

Ez nuke berdin pentsatuko aurtengo Gabonetan La Caixaren kutxazain automatiko baten babesean lo egin beharko banu, edota eurek probokatu ez duten gerra batetik iheska Europako hall miserablean abandonatueta bat izango banintz, edota kasurik onenean marka zuriko turroi zatitxo bat jan ahal izateko jantoki sozial batera joan beharko banu. Muturrera joan gabe ere, jai egun berezi hauek patata frijituaz lagundutako arrautza pare batekin ospatu behar dituenak bost izarreko hotel batean Gabon-gaua pasako duen aberats angulazalearen bizimodu begi onez ez ikustea ulertzekoa izango litzateke. Nola litezke hain alde handiak espezie bereko kideen artean?

Aspaldian urrundu ginen animalia irrazionalen mundutik. Batzuetan, ordea, egoera batzuk ikusita, eta ez gutxi, oraindik ere Darwinen espezien hautespen naturalean sartuta gaudela ematen du, Historiako aurrerape-nak ezer ezean geratu direla. Demokraziak zentzurik al du testuinguru bidegabe horretan? Zentzurik al du bakailaoa mozten ez duena hautatzeak bakailaoa mozten duena angulak jaten dituen delak jakinda?

Politikaria nor den, usteldua edo zintzoa den dikotomia moralean sartu gabe, berdin da, Amerikako Estatu Batuetako presidentea edo herrialderik apalenekoa; ez da gai izango aukera berdintasun minimo batzuk ezartzeko, ezta oinarri-oinarrizko jatekoak mundu guztiari ziurtatzeko ere, ez Gabonetan ez urteko gainontzeko garaietan, ez angula, ez gula.

2017an alde basati horiek berdintzeko bidea topatuko dugulakoan, ZORIONAK mundu guztiari. ◀



**MANOS TIJERAS**



San Jeronimo 64, baxua  
48950 - Erandio

☎ 944 170 239

**MAHIKO**  
PELUQUERÍA & BELLEZA

ALGORTAKO ETORBIDEA 61 - GETXO

🕒 Astean zehar: 9:30-19:30  
Zapatuak: 9:30-15:00

☎ 946 121 545

📌 MAHIKO PELUQUERÍA & BELLEZA

GARBITU ETA ORRAZTU	10,50€	GARBITU ETA TINTATU	16,50€	GIZONEZKOAK EBAGI	12,00€
GARBITU ETA EBAGI	12,00€	GARBITU ETA METXAK	25,00€	GARBITU, EBAGI, ORRAZTU	17,90€

**MARSUN**  
Ile-apaindegia eta Estetika

Umei ilea ebakitzea 5€  
Aurpegi hari-depilazioa

Ordutegi jarraia:  
Astean zehar, 9:30-19:00  
(astelehenak itxita)  
Zapatuak, 9:30-14:00



Alangoeta 6  
ALGORTA  
☎ 944.608.222

**hiruka**  
Berton, bertoko aukerak

**Susan Ile-apaindegia**  
Konfidantza osoz

Gaminiz 2. Gortiz (Andra Mari)

☎ 94.677.16.16 - 650.025.762

surfmarra@gmail.com



**EDUR**  
Ileapaindegia

Andreentzat eta gizonentzat  
Estetika-zerbitzuak

94.677.41.74

Erribera 32 - Plentzia



Tiocfaidh ár lá

OIER ITURRALDE FERNANDEZ «ATANO»  
EH Bildu

## Maitasuna merke saldu nahi digute... edo garesti!

**M**aitasunari pasioa izena daukan Su Ta Gar taldearen azken diskoa, balada eta erritmo la-saiagoz dator, ohituta gauzkan metal-doinuetatik aldenduz. Diskoaren azala aurrean nuela, izenburuak zer pentsatua eragin zidan axolagabeko igande gau batean: maitasuna eta pasioa, hitz potoloak eta ulergaitzak askotan, eta interpretaziora irekiak.

Gerturutzen dauzkagun Eguberriotan, nonahi eta noiz-nahi ikusi eta entzungo ditugu hitzok marketing kanpaina basatietan nahierara erabiliz. Maitasunaren ikusmolde interesatua salduko digute jostailu formatuan, *eau de toilet* edota whisky aparren sentipen lausoan. Pasioa ere xanpaina botiletan edota almendradun turroietan topatu ahal izango dugu. Eta eskaintza ukaezinetan, gainera!

*Erraz irensten ditugu sentipenik gabeko sentimenduak*, diot nire golgorako. Esanahiz hustuak bailiran, inork eskatu ez dituen oparien hartu-emanetan neurtuko ditu-

gu 'maitasuna' edo 'pasioa' gisako hitzak; neurrigabeko balioa duten sentimenduei, euro gutxi (edo gehiago) batzuen balioa emanaz. Maitasuna eta pasioa, kale bazterreko lurrin dendan eros dezakegulakoan.

Eta ez gara ohartzen maitasuna eguneroko gauza txiki-kietan topa dezakegula, izan lagunarteko elkarrizketan, ikasle baten irribarrean, amamaren begiradan edo ogi saltzailearen txantxa inozoan. Eta norbere buruarekiko maitasun keinuen artean, goizero esnatu orduko komuneko ispilu aurrean aurpegia freskatzen ari garela, geure burua maite dugula ohartzeak ere kalterik ez!

Beraz, eta mitin hippy honi amaiera emateko, maitasuna eta pasioa bai, baina merezi duenari. Inolako konplexurik gabe, inolako beldurrik gabe; eta errazkerietan erortzeari uko eginez. Gure bizitza ez dadin *Gorrotuari amorrua* edo *Amorruari gorrotoa* bihurtu.

Osasuna, maitasuna eta askatasuna! ◀



# Euskaraz kontsumitzeko sarea osatu gura dute

**Baduzu euskal kontsumitzaileen** kluba sustatzen dabil egunotan Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua. Klubaren helburua da hizkuntza bihurtzea kontsumorako irizpide; hori lortzeko, euskal kontsumitzaileen sarea osatu gura dute, lehenengo eta behin.

**G**abonen aurreko egunetan, gure inguruko dendetan eta komertzioetan murgilduta ibili ohi gara; opariak, bazkari zein afari berezietarako jakiak eta bes-telakoak erosten... Gero, familiaren eta maite ditugunen artean egoteko ospakizun horien ostean, merkatalguneetara hurreratuko dira asko merkealdietan beharpen handienak dituzten gauzak erostera. Kontsumoaren zurrubiloan murgilduko ei gara datozen egunotan; denbora luzea eskainiko diegu erosteketei, han eta hemen, beharrezkoak-edo eta oparitzeko ditugunak lortu guran. Egiteko horretan, euskaldunok gaztelerara jo behar izango dugu askotan, salerosketarako orduan euskaraz berba egiteko gaitasunik edo gurarik ez dutelako dendariak edo enpresek. Egoera horri buelta emateko asmoz, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak Baduzu egitasmoa sortu du: euskal kontsumitzaileen eta zerbitzu-emaileen komunitatea.

Ekimenaren sustatzaileek jakina-

razi dutenez, Baduzu-ren helburua da hizkuntza bihurtzea kontsumorako irizpide. Horretarako, lehenengo eta behin, euskal kontsumitzaileen sarea osatzea beharrezkoa dela diote, eta zeregin horretan «behar-beharrezkoa» dela «euskaldunen partaidetza eta lankidetza». Hori dela-eta, hainbat aurkezpen egin dituzte daborduko Euskal Herri osoan, egitasmoa ezagutzera emateko eta zabaltzeko. Joan den abenduaren 5ean Durangoko Azokan eman zuten ekimenaren berri, eta hilaren 13an, martitzenean, Algortako Azbarri kultur gunean azaldu zituzten proiektuaren nondik norakoak.

**Euskaraz kontsumitzeko, Baduzu** Kontseiluak osatu duen lan-mundua euskalduntzeko estrategiaren barruan kokatzen da Baduzu egitasmoaren abiapuntua. Estrategia hori definitzeko, helburu hori lortzeko zeresana duten pertsonen edo eragileen mapa osatu zuten. Horien artean hautatu zituzten estrategikoak zirenak; eta ho-

rien posizionamendua, portaera edo jarreretan eraginez, lan-mundua euskalduntzeko «urrats kualitatiboa» eman daitekeela pentsatu zuten. Hala, horiek guztiek mugitu egin behar dutela uste du Kontseiluak, «horretarako eragilea euskalgintza bera izan behariko litzateke». Horrenbestez, horiek eman behariko lituzketen urratsetan eragiteko lan-ildoak definitu dituzte, lan-munduko estrategia osatzeko.

Lan-munduan eragiteaz gainera, bezeroen esparrua ere landu beharra dagoela ondorioztatu dute. Zehaztu dutenez, lan-munduko entitateek bezeroa erdigunean kokatzen dute: «enpresariak garrantzi handia ematen diote bezeroen gura eta beharrak asetzeari». Hala, bezeroek enpresariengan eragiteko ahalmena dutela ondorioztatu du Kontseiluak. Bezeroek aukeratzeko ahalmena dute, produktuak non erosi eta zein zerbitzu kontsumitu gura duten hauta dezakete; «horrek ematen die ahalmena eta eragiteko gaitasuna». Hala, Baduzu ekimenaren bidez,

«domino-efektua» lortu gura dute: batzuek hasitako mugimendua apurka-apurka hedatzeko, «ezinezkoa delako bakoitzak bere kasa gauzak aldatzea». Hala, «txiki asko elkartuta, handiaren gan eragiteko bidea» hasi gura dute.

### Zelan lortu eraldaketa?

Eraldaketa denontzako tresna garrantzitsua da. Hori dela-eta, Baduzu ekimenaren bitartez informazioa helarazi gura diote jendeari, ahaldun eta eragile izan daitezen. Horrez gainera, norbanakoen arteko komunikazioa errazteko bitartekoak ematea planteatu dute sustatzaileek. Modu horretan, euskaraz kontsumitzeko gura bada-goela erakutsiko dute, «garrantzitsua da euskaldunon hizkuntza-eskubideak errespetatzeko beharra mahai-gaineratzea». Hala, zeregin horretan laguntzeko asmoz osatu du Kontseiluak Baduzu egitasmoa. Horregaz, alde batetik, establezimenduak identifikatu eta sailkatzeko aukera egongo da. Modu horretan, zerbitzua euskaraz ematen dituztenak ikusgarri egongo dira. Informazio hori, bezeroek beraiek osatuko dute. Beste alde batetik, elkar komunikatzeko leku bat eskaini gura



Egitasmoa herriz herri aurkezten dabilta egunotan; Algortan hilaren 13an egin zuten ekitaldia.

dute: «batera jarduteko, zalantzak argitzeko, ekimen bateratuak garatzeko eta herrietan taldeak sortzeko baliagarria izan daitekeena».

### Kontsumo-talde euskaldunak

Azaldu dutenez, herriz herriko kontsumo-taldeak sortzeko erraztasunak ere eskainiko ditu elkarrizketarako atal horrek. «Gure mundu globalizatuan geroz eta garrantzi handiagoa ematen zaio bertokotasunari, jasangarritasunari, kalitateari eta komunitateari. Bertakoa,

gurea, sustatu gura dugu, gure kontsumo-ohiturakaz; selektiboak, irizpidunak gara. Hala egin dezagun hizkuntzagaz ere», adierazi dute.

Herrian bertan zerbitzua euskaraz eskaintzen dutenak zoriondu eta saritzeaz gainera, euskaraz kontsumitzeko denda-sarea identifikatzera eta zabaltzera deitu dute; baita hizkuntza-eskubideen urraketa salatzerare, «beti ere modu alai eta baikorrean, euskaraz kontsumitzeko gura agerian utziz». ◀

info+: [www.baduzu.eus](http://www.baduzu.eus)



Gure esku

ZELAI NIKOLAS EZKURDIA  
Legelaria

## Tantaz tanta badator erabakiaren tsunamia

Aurton, 2016ko urtean herritarrok asko ikasi dugu erabakitzeko eskubideaz eta arlo horretan askatu beharreko korapiloez. Prozedura bat behar duela eta, herritarrok protokolo bat adostu dugu erabakitzeko eskubidea behar besteko berme eta garrantasunez erabiltzeko. Protokolo horren arabera, aniztasuna kudeatzen ik(h)astean hasi gara, desberdin pentsatzen eta sentitzen dugun pertsonak elkarrekin arituz. Galdera adostea ere dituen zailtasunez jabetu gara, baina zailtasuna aukera bihurtzen ik(h)asiz, erabakitzeko eskubidearen inguruko eztabaida ireki eta zabala ari gara egiten.

Zenbat urte aldarrikatzen eta zer gutxi dakigun erabakitzeko eskubidearen atzean dauden kontzeptuez (burujabetza, independentzia, autogobernua, nazioa, herria, ...). Bai, baina erabakitzeko eskubidearen ariketen bidez ahalduntzen hasi gara, beldurrak konpartitzen eta zalantzak argitzen; eta nola ez, etorkizun libre eta zorion-

tsu bat irudikatzeko gaitasuna eskuratzen; demokrazian normala baita erabakitzea eta demokraziaz ik(h)asteko demokrazian aritu baino hoberik ez dago.

2016an asko ikasi dugu lokatzetan zegoen gai honi buruz. 38 herritan egin dira jadanik Euskal Herriaren estatus politikoari buruzko herri galdeketa. 130.000 lagun izan dira deituak orain arte. 2017an berriz ehundik gora herri galdeketa egingo dira, besteak beste, Uribe Kostan. Asmoa dugu erabakitzeko ariketa 600.000 herritarren esku uzteko, hau da, Euskal Herriko biztanle osoaren %20ak izango du beraz aukera bere iritzia boto-kutxan sartzeko.

Erabakitzeko eskubideak irekitzen duen eztabaida normaltasunez eta berme guztiekin egiteko aukera Euskal Herri osora zabaltzen ari da, tantaz tanta eta elkarrekin, erabakitzeko eskubidearen gainean gure zoru komuna eraikiz. Hori da guretzat garrantzitsuena. Urte berri on denoi. ◀

# Horoskopoa



## Ura (Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Baliteke etxean senideakaz berba bat bestea baino altuagoa izatea. Izaki arrazionalen modura jokatzuz gero, ez du zertan larria izan behar.



## Aitzurra (Martxoak 21-Apirilak 19)

Guztioi komeni zaigu lantzean behin kirola egitea, baina orain bereziki zuk horren beharra duzu, jasaten duzun presiotik askatzeko.



## Garia (Ekainak 19-Uztailak 18)

Lo gutxi egiten duzu. Atsedena jarraian hartzea behar-beharrezkoa denez, konponbidea ipini behar diozu arazoari. Ez zara damutuko.



## Meta (Irailak 17-Urriak 16)

Atzean utzitako eta daborduko ahaztuta zeneukan kontu profesional bati aurre egiteko indarrez sentituko zara. Akordio positiboak lor ditzakezu.



## Otsoa (Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Azken boladan bizi izan duzun egoera kaxkarra amaitzeaz dago. Abiatzea lortu ez zenuen proiektuak aurrera egingo du, apurka-apurka.



## Hostoa (Apirilak 20-Maiatzak 19)

Urte osoari erreparatzuz gero, konturatuko zara oraingoa ez dela zure sasoirik onena. Hobetzeko asmoa izatekotan, zeezer aldatu beharko zenuke.



## Lastoa (Uztailak 19-Abuztuak 17)

Lan handia duzu eskuartean. Amaitzeko ahalegin handiak egin arren, ez duzu atoa lortuko. Atzeratu lana eta arreta gehiago ipini etxean.



## Hazia (Urriak 17-Azaroak 15)

Leheneñogen artean kokatzeko duzun grina hori beteko duzu, baina besteen inbidia erango duzu, aldi berean; kontuz!



## Adarra (Otsailak 19-Martxoak 20)

Ez galdetu Olentzerok eta Mari Domingik zer egin dezaketene zure alde, zuk euren eta gaztetxoene alde zer egin dezakezun baino.



## Eguzkia (Maiatzak 20-Ekainak 18)

Denok dakigu Olentzerozalea zarela; ez duzu behin eta berriro esateko beharrik. Hala, utzi behingoz Aita Noel panpinak ostentzeari.



## Iratzea (Abuztuak 18-Irailak 16)

Zure sormena eta kreatibitatea aske utziko dituzu, baina baliteke zeure inguruan denek ez ulertzea. Izan ezazu konfiantza zure buruarengan!



## Negua (Azaroak 16-Abenduak 20)

Oraindino zelatan ea postaria kaletik noiz agertuko? Berak ez dauka 2007ko Gabonetan zu opari barik lotu izanaren errurik...



Andy Hansonen dosia

JON URRAZA INTXAUSTI  
Aktorea

## Beste Gabon-gau bat Olentzero ikusi barik

**G**izarteak emozioak gordetzeko aholkatzen digu. Musikari pedante batek, larregi mozkortzen omen zelako, edaten etzuela esan zigun «artistok pertsona arruntek baino sentsibilitate handiagoa daukagu» (sic). Marlon Brando bezalako artista bikainek aldiz, ez dizkiete euren bulkada emozionalei oztoporik jartzen, eta bere erakargarritasun, morbo eta talentuaren gaintetik, mahai gainean zegoen pastel dozena, arrapaladan irentsi zuela txunditu omen zuen Tennessee Williams.

Ustezko artista sensibile lurtarron mundura etorrita, 24ko poteoan, aspaldiko lagunak ikusi eta pizten doakizun emozio sorta xurgatu beharrean, xurgatzen duzuna birra da, eta aldiz, barre, malko, urduritasun, premia eta besarkadei ateak zabaldu. Ondorioz, familia politikoa-rengana afaltzera pozik eta (dexente) emozionatuta helzen zara; sartu bezain laster, aitagarrebak ardoa es-

kaintzen dizu: barrura. Zeure sentsibilitate gainezkatua eta desio eno-gastronomikoak ase, eta lehengusu politiko eta koinatarekin barreak bustitzen jarraitzen duzu.

Azkenik, Layton-ek agindu bezala, emozionalki ondo kargatuta zaudenean gatazka pizten duzu: amaginarrebarekin ustekabeko debate bat suertatzen da, berotzen zara eta zure zintzotasun guztia isurtzen duzu. Philip Seymour Hoffmanek, aktore ona izateko inportanteena, norberaren sentipenekin zintzoa izatea zela zioen, zuk beraz, afaltzen amaitu baino lehen, zintzotasuna zeure ezaugarriarik nabarmenena dela demostratuko duzu, baita hanka barruraino sartu ere. Ondoren, turroia zerbitzatzuten duten bitartean, animoak baretzeko asmoz eta bide batez, Brando imitatuz neurririk gabe jandakoa apur bat jaisteko ere, sofan etzango zara eta familia politiko osoaren aurrean erridikulu handia eginez, lokartuta gelditu...

Sentsibilitate artistikoa. ◀

Urtea amaitu baino lehenago, hainbat zozketatan parte hartu gura baduzu, itaun honi erantzun:

## Lehiaketa. Hona galdera:

# Zure ustez zer falta zaio HIRUKAri? Zer gehituko zenioke?

## Getxolandia

Getxoko umeen parkera joateko 10 sarrera bikoitz dauzkagu. Getxoko Udalaren ekimenez.

## PINa

Umeen Gabonetako Parkera joateko 15 sarrera bikoitz oparituko ditugu. BEC-en ekimenez.

**SARIAK**

## Tarta bat

Azenariozko tarta gozo bat zozkatuko dugu. Très Bien gozotegiaren ekimenez.

Abenduaren 20a baino lehenago, helarazi erantzuna, zein zozketan/zozketetan parte hartu gura duzun, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: [hiruka@hiruka.eus](mailto:hiruka@hiruka.eus) edo 944 911 337

## Zozketa

Errigorak ere HIRUKA bultzatu gura izan du, eta euren ekimenez:

# Errigoraren 3 otzara zozkatuko ditugu:

Otzara bat HIRUKAren bazkideen artean; beste bat, HIRUKA lagunen artean, eta, azkena, abenduaren 31 baino lehenago HIRUKA lagun egiten diren kide berrien artean.

**SARIA**



## ARTOLOZAGA Tailerrak ANAIK

Mekanika - Karrozeria - Elektronika

### Sopelan

Gatzarrine z/g  
94 676 00 13  
94 676 38 14  
[www.talleresartolozaga.com](http://www.talleresartolozaga.com)

### Sestaon

Miguel Servet, 6  
94 472 13 74

Jatorrizko bermea mantentzen dugu!



# 4BIDE PINTURAK

mugarik gabeko koloreak

- Pintura eta berniz lanak
- Paper margotuak
- Zoruak

Loroño, 2 SOPELA · 94 676 29 92 · [4bidepinturak@gmail.com](mailto:4bidepinturak@gmail.com)

# ▶ Sar zaitez komunitatean!

**HIRUKA komunikazio-taldeak** elkarteen eta norbanakoen parte-hartzea bultzatu gura du. Hala, atari digitaleko komunitatea izeneko atalean, edonork aukera dauka ekimenak, artikuluak, argazkiak zein iritziak plazaratzeko, besteak beste. Baina, zelan egin komunitateko kide?


1

Sar zaitez [www.hiruka.eus](http://www.hiruka.eus) webgunean:



2

«Sartu» botoia sakatu izen-emate orrira joateko:



3

Bertan, hiru aukera izango ditugu izena emateko:



## Komunitateko edukiak sortu



Behin komunitateko kideak garena, «Sartu» botoia zegoen lekuan gure ikonoa ikusiko dugu.



Gure ikonoari sakatu ondoren, «Gehitu edukia» botoiari eman eta edukiak sartzeko orrialdera eroango gaitu.



Hainbat eduki sortu ahal izango dugu: iruzkinak, argazkiak, bideoak, artikuluak eta hitzorduak.



Komunitatera igotzen ditugun hitzordu guztiak zuzenean Agenda atalean agertuko dira.

## Facebook/Twitter bidez:

Horrela erregistratzea errazagoa da. Facebook edo Twitter kontuagaz sartu gura duzula aukeratu eta, «Saioa hasi» aukeratu ostean, zuzenean kide izango gara.

## Posta bidez:

- «Erabiltzaile berria naiz eta izena eman nahi dut» botoiari sakatu.
- Erabiltzaile izena aukeratu eta gure e-posta kontua sartu beharko dugu, norberak gura duen pasahitzagaz. Adi! Ez du zertan e-mailaren berbera izan behar.
- Erabiltzaile izena eta pasahitza sartu eta komunitateko kide izango gara.

VRONDO  
ESTANKOA

Zorionak  
eta urte berri on!

Sabino Arana 67, Leioa ☎ 944 649 233



**cianoplan**  
GLOBAL PRINTERS

Villa de Pientzia, 6 · 48930 AREETA  
[www.cianoplan.es](http://www.cianoplan.es) · 902 103 763

*Zure argazkiekin  
pertsonalizatu!*



2017rako Egutegi Pertsonalizatuak

ZAZPIAK BAT KULTUR ELKARTEA, BERBOTS ERANDIO EUSKARA ELKARTEA, ESPAZIO ESKOLA, BETIKO IKASTOLA, ELA SINDIKATUA, AEK, ANDER DEUNA, BIZARRA LEPOAN KULTUR ELKARTEA, IÑAKI BITXITEGIA, TABERNA BERRI, GURE ETXEA TABERNA, TXAKOLI MOTAGANE, LURREN MUSIKAFE, LAIAK, PORTU ZAHARRA TABERNA, TXIBERRI, XURRUT, UNAI, EGIN, AYOBERRI, GALP, GETXOGASO, ARTOLOZAGA TAILERRAK, SAIAZ GETARIA, OSABIDE, KUMARA, CIANOPLAN, ANDER DEUNA IKASTOLA, BETIKO IKASTOLA, AIXERROTA BHI, HAMILTON, LUBERRI, LAUBIDE PINTURAK, VILLAR, GARAIZAR BERRIKUNTZAK, ALDAI, KONTXI URDAITEGIA, BIHAR BEER, GAURKO, JUAN MARI URDAITEGIA, AINGARA BORDATUAK, EGUNKARIAK PRENTSA, GOIZEAN PRENTSA, OMNICOM, JOSE ANTONIO AGIRRE EUSKALTEGIA, TOKIKOM, GETXOPHOTO, ARTEDRAMA, GORLIZKO UDALA, ITXASGANE PRENTSA, LV COMUNICACIÓN, AYG COMUNICACIÓN, BARRIKAKO UDALA, SOPELAKO HAURRESKOLA, GETXOLAN, LORALDIA, TXORIERRI POLITEKNIKA, MUGARIK GABE, BERTSOZALE ELKARTEA, OINUTSIK PODOLOGIA, PATUKOS, GU BANAKETAK, SERINFOR, EGINKOR INMOBILIARIA, JOSU CERRAJERIA, STUDIO K, SUSEGUK, LIMPIEZAS VALVERDE, ZINEBI, ZINEMA KONTARI, ARTATZA-ROMO INSTITUTUA, FADURA IKASTETXEA, TARTANGA IKASTETXEA, GRUPO SANIG, URIBE KOSTA BHI, SOPELAKO TURISMO ETA KULTUR ETXEA, KIPULA EKODENDA, LEIOAKO UDALA, FOTOKOPIAK LEIOA, URONDO ESTANKOA, FOTOXABIER SOPELA, LA KALA TABERNA, FRONTOIA TABERNA SOPELA, MEÑAKOZ JATETXEA, LAUBIDE TABERNA SOPELA, ERROIA, DANATARIK DENDA, CIEN PIES ZAPATADENDA, SORGINZULO HERBORISTERIA, URIBE KOSTAKO EKODENDA, MUGI FISIOTERAPIA, INDARLAN, RESIDENCIAL PALAS, NEKATUR, OXFORD LANGUAGE, LEMOIZKO UDALA, PORTU ZAHARRA ARMINTZA, TXORROPE, KAIA, SATISTEGI, BURDIÑOLA, ZUTARRI, LOBÓN BITXITEGIA, PARAPENTE BIZKAIA, BIZARRETA JATETXEA, HONDARTZAPE, IGERETXE HOTELA, TXOKOA TABERNA, NEBARREBAK, MILAGROS, NEW TAVERN GORLIZ, ARAI ASEGURUAK, BATZOKI GORLIZ, KANTXA KIROL MODA, TXOKO BETI BATERA, ESKARRA, LASAI TABERNA, EMILI URANGA LUMALE, SNOOPY, AMETS KAMISSETAK, BEREZI, NIKKOU, HER, OSO, MUXUZ MUXU, HATOR, LAINOA, ATERKI, AJURIA, JOLASAURRE, SALSIDU, BIKAIN, EREAGAKO TXIRINGITOA, SARATXAGA GARAGARDOGEGIA, GETXOKO UDALA, JUANTXU FRUTADENDA, QUETENQUE, LAUBIDE TABERNA ALGORTA, BASTER, SUSTRAI, UGARTENA, BEGOTXU, SANIKO, PINPIRIÑA, QUINSA, CAY VILLE, ADORE MODA, LA MAGA, LEIOAKO UDALA, FLOVAR JOYEROS, OINAZPI ZAPATADENDA, GOBELAURRE LIBURUDENDA, ZUGAN PSIKOLOGIA, ZIRRI-MARRA ARTE, GOIKOA TABERNA, XIXILI, IZARRA, MOTABARRI, ERANDIOKO UDALA, ZIABOGA, GARABIAK TATTOO, GUREA PLENTZIA, URDULIZKO UDALA, TXOZNA URDULIZ, TAMARISES, JOLASTOKI, KAROLA ETXEA, GORRONDONA, LA DUPLA, TXOZNA, URDULIZKO BATZOKIA, ETXEANDIA GARAGARDAUAK, MONEDERO HARATEGIA, ONDARRETAKO BATZOKIA, BERANGOKO UDALA, URTXINTXA ESKOLA, ZUBIKOA PSIKOLOGIA, SPIK HIZKUNTZAK, ITXAS-IKUS LIBURUDENDA, ITXARTU ELKARTEA, HIRE ONDOAN PSIKOLOGIA, SOINU MUSIKA ESKOLA, ARTESKOLA, PLENTZIAKO UDALA, LABORAGUNEA, DANDAKA, LA CROISSANTERIE KRUSAN DENDA...

# Urte berri on eta eskerrik asko denoi

...eta HIRUKALagun edo Bazkide horri, proiektu hau egiten eta zabaltzen laguntzen gaituzulako, datorren urtea ederragoa izan dadila opa dizugu!

## hiruka

# General Optican

DENA  
% 50  
MERKEAGO

EHUko ikaslea edo langilea zara?  
Bada zuretzat egindako beherapenak balia itzazu!  
Sartu eta ikusi.



\* Eskaintza hau ezin zaie lotu beste eskaintza edo sustapenei; EHUren Leioako campusean egindako erosketei bakarrik dagokie. Bertoko kide direna baieztatu beharko dute ikasleek eta langileek, Unibertsitatearen agiri ofizial bat aurkeztuz.



**General Optica**